

GRADUA: MEKANIKA

GRADU AMAIERAKO LANA

AUTOMOBIL BATEN TRANSMISIOAREN DISEINUA

3. DOKUMENTUA – KALKULUEN ERANSKINA

Ikaslea: López, Arana, Asier

Zuzendaria: Santos, Pera, Juan Antonio

Ikasturtea: 2017-2018

Data: Bilbon 2018ko Otsailak 22

3.DOKUMENTUA: KALKULUEN ERANSKINA

3.1 HASIERAKO DATUAK	6
3.2 AUTOMOBILAREN ANALISI DINAMIKOA.....	8
3.2.1 ERRODADURAN ERRESISTENTZIA.....	8
3.2.2 ALDAPAREN ERRESISTENTZIA	10
3.2.3 INERTZIAREN ERRESISTENTZIA.....	10
3.2.4 AIREAREN ERRESISTENTZIA.....	12
3.3 ENBRAGEA.....	14
3.3.1 ENBRAGE DISKOAREN FORRUEN MATERIALA	14
3.3.2 ENBRAGE DISKOAREN DIMENTSIONAK.....	15
3.3.3 ENBRAGEAREN AUKERAKETA	18
3.4 KUTXA ALDAGAILUA.....	19
3.4.1 KUTXAREN KONFIGURAZIOA.....	19
3.4.2 TRANSMISIO ERLAZIOAK.....	20
3.4.3 IBILGAILUAREN GAITASUNA	25
3.4.4 ENGRANAJEAK.....	28
3.4.4.1 ENGRANAJEEN HORTZ KOPURUA.....	28
3.4.4.2 ENGRANAJEEN MODULUA	34
3.4.4.3 ATZERAKO MARTXAREN ANALISIA	45
3.4.4.4 ENGRANAJEEN DIMENTSIONAKETA	50
3.4.4.5 ENGRANAJEEN INDARRAK.....	57
3.4.4.6 ENGRANAJEEN EGIAZTAPENA	61
3.4.5 ARDATZAK.....	62
3.4.5.1 ARDATZETAKO ERREAKZIO ETA ESFORTSUAK.....	63
3.4.5.2 ARDATZEN DIAMETROA	74
3.4.5.3 ARDATZEN TXABETAK.....	77
3.4.5.4 ARDATZEN ILDASKATUAK.....	83
3.4.6 ERRODAMENDUAK.....	92
3.4.6.1 ARDATZEN ERRODAMENDUAK.....	94
3.4.6.2 GURPIL ASKEEN ERRODAMENDUAK.....	112
3.4.7 SINKRONIZATZAILEAK.....	115
3.4.7.1 AKOPLAMENDU KONIKOA	116

3.4.7.2 ILDASKATUA	118
3.5 TRANSMISIO ARDATZA.....	120
3.5.1 HASIERAKO DATUAK.....	120
3.5.2 ARDATZAREN PROFILAREN AUKERAKETA.....	121
3.5.3 ARDATZAREN KONPROBAZIOA	122
3.5.4 KARDAN GILTZADURAK.....	126
3.6 DIFERENTZIALA.....	128

3.1 HASIERAKO DATUAK

Proiektu honetan BMW seri1 118d automobilaren transmisio sistemaren diseinu mekanikoa gauzatuko da. Bere atal desberdinen kalkulu eta diseinurako abiapuntutzat hartu diren datu teknikoak ondorengoak dira.

HASIERAKO DATUAK	
Motor mota	4 zilindroko motor diesela
Motorra posizioa	Aurrekoa luzetarako
Zilindrada	1995 cc
Potentzia	143 CV (105kW) / 4000 rpm
Motor pare maximoa	320 Nm / 2500 rpm
Kutxa aldagailua	Manuala, 6 martxa
Trakzioa	Atzekoa
Abiadura maximoa	224 Km/h
Azelerazioa (0-100 Km/h)	8,9 s
Pisua hutsean	1395 Kg
Masa maximoa	1850 Kg
Gurpilak	195 / 55 R16 87H

3.1 Taula: hasierako datuak

TRANSMISIO ERLAZIOAK	
(ω_m/ω_r)	
1° Martxa	4,002:1
2° Martxa	2,109:1
3° Martxa	1,38:1
4° Martxa	1:1
5° Martxa	0,781:1
6° Martxa	0,645:1
Atzeko martxa	3,647:1
Diferentziala	3,077:1

3.2 Taula: transmisio erlazioak


3.2 taulan autoak izan beharrezko transmisio erlazioak agertzen dira, hauek ondoren ikusiko denez oso garrantzitsuak dira kutxa aldagailuan diseinatzerako orduan. Datu hauek http://www.arpem.com/coches/coches/bmw/s_1/modelos-11/118d-143-5p.html web orrialdetik hartu dira.

Características técnicas BMW Serie 1 118d 5p

Posición del motor	Delantero-longitudinal
Número de cilindros	4 en línea
Válvulas por cilindro	4
Cilindrada (cc)	1995
Potencia Máxima	143 Cv (105 kw) / 4.000 r.p.m.
Par motor máxima	320 Nm / 1.750 r.p.m. - 2.500 r.p.m.
Diámetro x Carrera (mm)	90,0 mm x 84,0 mm
Distribución	Dos árboles de levas en la culata
Alimentación	Inyección directa
Relación de compresión	16,5 : 1
Caja de cambio	Manual de 6 velocidades
Desarrollos (km/h a 1000 rpm)	4,002 / 2,109 / 1,380 / 1,000 / 0,781 / 0,645
Marcha Atrás	3,647
Desmultiplicación Final	3,077

3.1 Irudia: transmisio erlazioak

Hurrengo irudian autoaren dimentsio nagusiak agertzen dira, hauek autoaren analisi dinamikoa egiteko erabili dira.



3.2 Irudia: autoaren dimentsio nagusiak

3.2 AUTOMOBILAREN ANALISI DINAMIkoa

Ibilgailu guztiek pausagunetik zein abiadura batez mugitzeko, beren desplazamenduaren kontra agertzen diren indar erresistenteak gainditu behar dituzte. Horretarako, motorraren potentziaz baliatuz, autoaren transmisio sistemak erresistentzia horien kontrako momento eragilea garatzeko gai izan behar da. Hori atal honetan aztertuko da.

3.2.1 ERRODADURAN ERRESISTENTZIA

Gurpilek jasaten duten pisua dela eta, hauek lurlean presioa eragin eta higiduraren kontrako errodadura indarra (F_{rd}) sortzen da. Erresistentzia hau, pisuaren, lurzorua eta pneumatikoaren menpe dago eta gurpilaren zentroan oreka planteatuz lortzen da.

$$\sum M_0 = 0 \rightarrow N \cdot a = F_{rd} \cdot R \rightarrow F_{rd} = \frac{a}{R_g} \cdot N \rightarrow F_{rd} = \mu_{rd} \cdot W$$


3.1 Formula

Non:

F_{rd} : errodadura indarra [Kg]

$\mu_{rd} = \frac{a}{R_g}$: errodadura koefizientea [-]

W : ibilgailuaren pisu totala [kg]



3.3 Irudia: errodadura agertzen diren indarrak

Errodadura koefizientea ibilgailuaren eta lurraren arabera aldatzen da eta 3.3 taulatik, kotxeak asfaltozko errepidetik ibiltzean 0,013-eko koefizientea dauka.

Errepide mota	Errodadura erresistentzia koefizientea, μ
Automobilen pneumatikoak	
Homigoia, asfaltoa	0,013
Legar errodaturia	0,02
Alkatema	0,025
Zolatu gabeko bidea	0,05
Lurra	0,1-0,35
Kamioien pneumatikoak	
Homigoia, asfaltoa	0,006-0,01
Lurra	0,05-0,11

3.3 Taula: errodadura koefizienteak

Hori jakinda, balioak 3.1 formulari ordezkatu eta autoak errodaduraren ondorioz jasaten duen errodadura indarra kalkulatu da.

$$F_{rd} = 1850 \cdot 0,013 = 24,05 \text{ Kg}$$

3.2.2 ALDAPAREN ERRESISTENTZIA

Automobilak aldapa bat igotzean agertzen den indarra da, hauxe ibilgailuaren pisuaren luzetarako osagaiarengatik agertzen da. Indar hau pisuaren osagaiaren eta aldaparen inklinazioaren arabera da. Aldapa maximoa %30-koa bezala finkatu da. Hurrengo ekuazioa erabiliko da kalkulerako:

$$F_{ald} = W \cdot i_{max}$$

3.2 Formula

Non:

F_{ald} : agertzen den indarra maldagatik [Kg]

W : ibilgailuaren pisu totala [kg]

i_{max} : gainditu beharrezko malda maximoa [-]

Ondoren:

$$F_{ald} = 1850 \cdot 0,4 = 740 \text{ Kg}$$

3.2.3 INERTZIAREN ERRESISTENTZIA

Automobilak abiadura bategaz ibiltzeagatik agertzen den indarra da. Indar hau autoak azelerazio aldaketa izaten duenean agertzen da, horrexegatik autoa martxan jartzean edota abiadura aminoratzean inertzia indar bat agertzen da. Kalkuluetarako suposatuko da autoak sortzen duen inertzia 0-100km/h tarteko azelerazioan, auto honek abiadura hori lortzen du 8,9 segunduetan.

Hurrengo formulak erabiltzen dira:

$$F_{in} = m_a \cdot a$$

$$v = v_0 + a \cdot t$$

3.3 Formula

F_{in} : inertiagatik agertzen den indarra [Kg]

m_a : autoaren masa [Kg]

a : azelerazioa $\left[\frac{m}{s^2}\right]$

v : bukaerako abiadura $\left[\frac{m}{s}\right]$

v_0 : hasierako abiadura $\left[\frac{m}{s}\right]$

t : denbora [s]

Non:

1.martxako konprobaketarako:

Erabilitako azelerazioa 0-tik 36,12* km/h-ra 3 s-tan.

*Kotxeak hartzen duen abiadura maximoa 1. martxan kotxeak 4000 rpm-tara (potentzia maximoan)

$$v_0 = 0 \frac{m}{s} \rightarrow a = \frac{v}{t}$$

$$v = 36,12 \frac{km}{h} \cdot \frac{1h}{3600s} \cdot \frac{1000m}{1km} = \frac{10,03m}{s}$$

$$a = \frac{10,03 m/s}{3s} = \frac{3,34m}{s^2}$$

$$m_a = \frac{1395 \frac{Kg \cdot m}{s^2}}{9,81 m/s^2} = 142,2 Kg$$

$$F_{in1} = 142,2 Kg \cdot \frac{3,34m}{s^2} = 443,67 N \cdot \frac{1Kg}{9,81N} = 48,41 Kg$$

6.martxako konprobaketarako:

Erabilitako azelerazioa 185,08*-tik 224 km/h-ra 20 s-tan.

*Autoaren abiadura 4. martxatik 5.-era pasatzerakoan.

$$v = 185,08 \frac{km}{h} \cdot \frac{1h}{3600s} \cdot \frac{1000m}{1km} = \frac{51,41m}{s}$$

$$v = 224 \frac{km}{h} \cdot \frac{1h}{3600s} \cdot \frac{1000m}{1km} = \frac{62,22m}{s}$$

$$a = \frac{\frac{62,22m}{s} - \frac{51,41m}{s}}{20s} = \frac{0,5405m}{s^2}$$

$$m_a = \frac{1395 \frac{Kg \cdot m}{s^2}}{9,81 m/s^2} = 142,2 Kg$$

$$F_{in6} = 142,2 Kg \cdot \frac{0,5405m}{s^2} = 76,86 N \cdot \frac{1Kg}{9,81N} = 7,83 Kg$$

3.2.4 AIREAREN ERRESISTENTZIA

Mugimenduan dagoen ibilgailu edo gauza orok airearen oztopo edo talka jasaten du (gero eta abiadura handiago, orduan eta oztopo gehiago) eta mugimenduari kontra egiten dion airearen indarra (F_{ra}) agertzen da. Indar hau autoaren abiaduraren, aurrealdearen azaleraren eta aerodinamikaren menpekoa da.

$$F_{ra} = \rho_s \cdot A \cdot C_D$$

3.4 Formula


Non:

F_{ra} : airearen indarra [Kg]

ρ_s : gainazaleko presioa $\left[\frac{Kg}{m^3}\right]$

A : autoaren aurrealdearen azalera[m²]

C_D : koefiziente aerodinamikoa [-]



3.4 Irudia: airearen erresistentzia autoan

Gainazaleko presioaren kalkuluan airearen abiadura ez da aintzat hartu, izan ere, bere balioa oso aldakorra da eta baldintza normaletan arbuigarria izaten da. Hala ere, bere abiadurak eta noranzkoak ibilgailuaren abiaduran eragina du, aurkakoa denenean motelduz (-) eta aldekoa denean areagotuz (+).

$$\rho_s = \frac{\rho_{aire} \cdot (v \pm v_{aire})^2}{2g} = \frac{\rho_{aire} \cdot v^2}{2g}$$

3.5 Formula

Non:

ρ_{aire} : $1,225 \frac{kg}{m^3}$: airearen dentsitatea (15°C – tan)

v : autoaren abiadura $\left[\frac{m}{s} \right]$

g : $\frac{9,81m}{s^2}$: grabitatearen azelerazioa

Kasu kritikoena autoa abiadura maximoan higitzean ematen da, kasu honetan autoaren abiadura maximoa 224 km/h da, eta gainazaleko presioa kalkulatzeko erabiltzen da.

$$v_{max} = 224 \frac{km}{h} \cdot \frac{1000m}{1km} \cdot \frac{1h}{3600s} = 62,22 \frac{m}{s}$$

$$\rho_s = \frac{1,225 \cdot 62,22^2}{2 \cdot 9,81} = \frac{241,71Kg}{m^2}$$

Autoaren aurrealdearen azalera ez da uniformea eta hori kalkulatzeko nahiko zaila da, baina balio hurbildua lortzen da autoaren zabalera eta altuera dimentsioekin (1751 x 1430 mm), koefiziente honi bider 0,8 egin behar zaio, zeren eta autoaren aurrealdeko azalera ez da guztiz uniformea.

$$A = 1,751 \cdot 1,43 \cdot 0,8 = 2 m^2$$

Koefiziente aerodinamikoak ibilgailuak airearen kontra duen kontaktuaren arabera da ete bere balioa haize-tuneletan esperimentalki lortzen da. Ibilgailuaren karrozeriaren diseinua hein handi batean koefiziente hau minimizatzea bideratuta dago eta 3.4 taulatik autoentzat bere balioa 0,1-0,5 tartean determinatzen du, hauxe autoaren karrozeriaren arabera izaten da. Gero eta karrozeria aerodinamikoagoa izan gero eta gehiago hurbilduko da 0,1 baliora, eta alrebez gertatzen da, karrozeria aerodinamikoak ez izatekotan koefiziente aerodinamikoaren balioa gero eta gehiago hurbiltzen da 0,5-ra. Kasu honetan balio intermedioa erabili da kalkulurako, 0,25 hartu da.

Ibilgailu mota	Erresistentzia aerodinamikoko koefizientea, C_D
Automobilak	0,1-0,5
Furgonetak	0,4-0,58
Autobusak	0,5-0,8
Kamioi traktorea-semitrailer	0,64-1,1
Kamioia-trailer	0,74-1

3.4 Taula: erresistentzia aerodinamikoko koefizientea

Orain aplikatu daiteke 3.4 formula:

$$F_{ra} = 241,71 \cdot 2 \cdot 0,25 = 120,855Kg$$


3.3 ENBRAGEA

Enbragea motorra eta kutxa aldagailua elkarrekin akoplatu eta motorra transmisioko beste atalekin konektatzen duen mekanismoa da. Enbragea gidatze beharren arabera biraketa transmititzea edota etetea ahalbidetzen du, gidariak pedalarrekin kontrola dezakeen elementua, autoa martxan jartzeko eta martxa aldaketetarako ezinbesteko elementu da transmisio sisteman.

Enbragearen diskoak motorraren intertzia bolantearekin eta presio platerarekin duen marruskaduraren bitartez gertatzen da biraketaren transmisioa. Horretarako diafragma bidez akzionatzen den presio platerak diskoa zanpatu eta akoplatuta (enbragatuta) mantendu behar ditu. Horrela, biraketa enbrage diskora heldu eta ildaskatu bidez kutxa aldagailuaren ardatz primarioa pasatzen da. Hori horrela izanda, enbrage diskoa eta akzionamendu indarra enbragearen diseinurako ezinbesteko aspektuak dira eta beren kalkulua burutuko da. Oso garrantzitsua da baita ere, enbrage diskoaren frikzio forruak, zeren eta honen bidez gertatzen da marruskadura biraketa transmisioa gerta dadin, horrexegatik frikzio materialaren aukeraketa egokia garrantzitsua da.

3.3.1 ENBRAGE DISKOAREN FORRUEN MATERIALA

Normalean gehien erabiltzen den materiala enbrageen disko forruentzako organiko motakoa da, kasu honetan ehuna metalezko zuntzaz dago osatuta konpaktatuta dagoen aramida edo beirazko zuntza ehun artean. Material honek bizitza ziklo altua dauka eta tenperatura periodo tarte handian lan egiten du, gainera hasiko desgastea oso txikia da. Baita ere akoplamendu leun eta progresiboa lortzen da.



3.5 Irudia: Forruen bizi iraupena

3.3.2 ENBRAGE DISKOAREN DIMENTSIOAK

Motorraren para enbrage diskoaren gainazalen garatutako marruskadura momentuaren bitartez transmititzen da, presio plateraren presioak kontaktu hori bermatzen duela. Zehazki, transmisioa diskoan erramatxatuta dauden frikzio forruen bidez gauzaten da eta hauek motorraren pare maximoa transmititu dezaketen aztertzen da.

Hasteko lehendabizi finkatu behar da enbragearen barne eta kanpo erradioak, hauek baitira inertzia bolantearekin kontaktuan daudenak eta para transmititzen dutenak. Francisco Muñoz Garcia gomendatzen du enbrageak transmititu dezaken pare maximoa $M_{enbr.}$, segurtasun tarte bat edukitzea motorrak ematen duen pare maximoarekin M . Diskoak lan egitean txikitzen da marruskadura koefizientea eta baita ere, malgukiak deformazioak jasotzen dituzte temperatura altuak direla eta, aurreko guztia presio galera ekartzen du, eta horren ondorioz, enbrageak presio gutxiagorekin lan egitea ekar dezake, autoan arazoak ager daitezke eta enbrage ondo funtzionatzen ez badu autoaren beste hainbat osagai hondatu ditzake.

$$M_{enbr.} = 1,5 \cdot M$$

x.formula

$$M_1 = 1,5 \cdot 320 Nm = 480 Nm \cdot \frac{1 Kg}{9,81 N} \cdot \frac{100 cm}{1 m} = 4892,97 Kg \cdot cm$$

Enbragearen kanpo diametroa kalkulatzeko hurrengo formula erabiltzen da:

$$R_{kan.} = \sqrt[3]{\frac{M_{enbr.}}{2,75 \cdot p_{max} \cdot \mu}}$$

3.6 Formula

Non:

$M_{enbr.}$: motorraren pare maximoa

p_{max} : funtzionamendu leun baterako presioa $2,4 \text{ Kg/cm}^2$

μ : marruskadura koefizientea

$R_{kan.}$: enbrage diskoaren kanpoalde erradioa

Manuel Cascajosa liburuaren arabera, presio gomendagarria funtzionamendu leun eta progresibo batentzako $2,4 \text{ Kg/cm}^2$ eta materialaren marruskadura koefizientea 0,4-koa da. Parea $4892,97 \text{ Kg}\cdot\text{cm}$ dela eta aurreko datuekin:

$$R_{kan.} = \sqrt[3]{\frac{4892,97}{2,75 \cdot 2,4 \cdot 0,4}} = 12,28 \text{ cm}$$

Praktikan hurrengo erlazioa hartzen da:

$$R_{bar.} = 0,7 \cdot R_{kan.} = 0,7 \cdot 12,28 = 8,6 \text{ cm}$$

3.7 Formula

“BUDYNAS, R. eta NISBETT, J. Diseño de Ingenieria Mecanica de Shigley. Editorial McGraw Hill. Madrid, 2008.” liburua jarraituz, enbragearen marruskadura momentua kalkulatzeko, higadura uniformeko hipotesia erabiliko da irizpide kontserbakorrakoak dituelako. Enbrageak jasan ditzakepresioa, indar axiala eta marruskadura parea kalkulatzeko da.

Presioa:

$$p = p_{max} \cdot \frac{R_{bar.}}{R_{kan.}} = 2,4 \cdot \frac{8,6}{12,28} = 1,68 \text{ Kg/cm}^2$$

3.8 Formula

Indar normala:

Enbrage diskoak motorraren parea transmititzeko, presio platerari indar bat aplikatu behar zaie, azken hau enbrage diskoa inertzia bolanterantz bultzatzeko, eta frikzio forruekin

marruskadura pareta lortzeko. Egin beharreko indar hori ere higadura uniformeko hipotesiarekin aztertzen da, baina diskoaren indar normala ohiko indar normala integratuz determinatzen da.

$$F_n = \int_{R_{bar.}}^{R_{kan.}} d \cdot F_n = \int_{R_{bar.}}^{R_{kan.}} p \cdot dA = \int_{R_{bar.}}^{R_{kan.}} \left(\frac{p_{max} \cdot R_{bar.}}{R} \right) \cdot 2\pi \cdot dR \rightarrow$$

$$F_n = 2\pi \cdot p_{max} \cdot R_{bar.} \cdot (R_{kan.} - R_{bar.})$$


3.9 Formula

$$F_n = 2\pi \cdot 2,4 \cdot 8,6 \cdot (12,28 - 8,6) = 477,24 \text{ Kg}$$

Lortutako indar normala enbragearen presio eta pare ahalmen maximorako izango zen, baina egoera horretan marruskadura momentua motorreko pare maximoa baino handiagoa da eta presio plateran errealitatean egin beharreko indarra kalkulaturakoa baino txikiagoa izango da.

Momentu tortsoarea:

Enbrageak garatu dezakeen marruskadura momentua kalkulatu da, eta ondoren konprobatzen da lortutako marruskadura momentu hori autoak transmititu dezakeen pare maximoa gainditzen badu, horrelako izatekotan enbrage diskoaren dimentsioak ondo egono liriteke, horrela ez izatekotan marruskadura momentu altuagoa izango lukeen beste enbrage bat bilatu behar da.



$$T_{roz.} = \int_{R_{bar.}}^{R_{kan.}} R \cdot F_a = \int_{R_{bar.}}^{R_{kan.}} R \cdot p \cdot \mu \cdot dA = \int_{R_{bar.}}^{R_{kan.}} R \cdot \mu \cdot p_{max} \cdot \frac{R_{bar.}}{R} \cdot 2\pi \cdot R \cdot dR \rightarrow$$

$$T_{roz.} = \pi \cdot \mu \cdot p_{max} \cdot R_{bar.} \cdot (R_{kan.}^2 - R_{bar.}^2) = \frac{n \cdot \mu \cdot F_a \cdot (R_{kan.} + R_{bar.})}{2}$$

3.10 Formula

Non:

$T_{roz.}$: enbrageak jasan ditzake parea

n : aurpegi kopurua

μ : marruskadura koefizientea

F_a : indar normala

$$T_{roz.} = \frac{2 \cdot 0,4 \cdot 477,24 \cdot (12,28 + 8,6)}{2} = 3986,16 \text{ Kg} \cdot \text{cm}$$

$$T_{roz.} = 3986,16 \text{ Kg} \cdot \text{cm} \cdot \frac{9,81 \text{ N}}{1 \text{ Kg}} \cdot \frac{1 \text{ m}}{100 \text{ cm}} = 391,04 \text{ Nm} > 320 \text{ Nm}$$

Ikusi daitekeenez, enbrageak hartutako dimentsioekin eta frikzio forruen materialarekin, garatu dezakeen marruskadura pare motorraren pare maximoa baino handiagoa da eta motorraren pare guztia transmititu dezake, orduan diseinua ondo dago.

3.3.3 ENBRAGEAREN AUKERAKETA

National brake and clutch web-katalogotik enbrage komertzial bat aukeratuko da.

Make & Model	Eng. cc	Date	Kit Ref	Pcs	Dimensions			Notes & CSC Info
					Cover	Plate	Teeth	
1 Series (E81, E87) Hatchback								
116d	1995cc	08-12	CK10223	3	240	240	22	(CSCs sold separately)
118d (N47 Engines)	1995cc	06-12	CK10223	3	240	240	22	
118d (M47 Engines)	1995cc	06-12	CK10253	3	240	240	22	
120d (N47 Engines)	1995cc	06-12	CK10223	3	240	240	22	
120d (M47 Engines)	1995cc	06-12	CK10253	3	240	240	22	

3.6 Irudia: enbragearen aukeraketa

Ikusi daiteke aukeratutako enbragea, CK 10223, enbrage diskoaren kanpo diametroa 240 mm-koa dela, eta kalkulan lortutako kanpo diametroa 245mm-takoa zela, baina ez dira arazorik agertuko zeren eta dimentsio horiekin enbrageak jasan ditzakeen pare motorrak sortutakoa baino askoz handiagoa da. Eta kasu honetan diskoa 5mm txikiago edukitzeagatik jasan ditzakeen pare ez da hainbeste izango aurrean kalkulatuarekin.

3.4 KUTXA ALDAGAILUA

Kutxa aldagailua motorretik heltzen zaion biraketaren abiadura eta pareta transformatzen edota biraketa noranzkoa alderantzikatzen duen elementua da. Honek motorraren biraketa erregulatu eta funtzionamendu tarte optimoan aritzea lortzen du, egoera eta baldintzen arabera gurpilei potentzia egokia transmititzea ahalbidetzen du.


3.4.1 KUTXAREN KONFIGURAZIOA

Kalkuluekin hasi baino lehen oso garrantzitsua da kutxa aldagailuak izango duen konfigurazioa jakitea. Proiektu honetarako 3 ardatzetako kutxa aldagailu manuala erabili da, errekomentagarria izaten da aurreko motorra eta atzeko gurpil eragileak dituzteen autoetan. Kutxa honek aurrerako 6 martxa izango ditu eta atzerako martxa bakarra.

1., 2., 3., sarrerako engranajea (4.), 5. eta 6. engranajeak hartz helikoidalekoak izango dira, kutxak zaratza gutxiago eta momento handiagoak jasango baiditu, hartz helikoidalak $\rightarrow \cos \beta \neq 1$. Gomendagarria da β angelua hartz helikoidaletan 20° eta 30° tartekoa izatea.

Atzerako martxarako hartz zuzeneko engranajeak erabiliko dira, hartz zuzenak $\rightarrow \cos \beta = 1$.

Kutxa aldagailuaren ardatzen eta engranajeen kokapena hurrengo izango da:




3.7 Irudia: kutxa aldagailuaren konfigurazioa

4. martxa edo zuzena, berez, ez da engranaje bat. Hauxe lortzen da ardatz nagusia eta ardatz sekundario kontaktuan sartzean eta biak ardatz bezala egiten dutenean, azken hau

sinkronizatzaileen bitartez lortzen da. Sinkronizatzaileen konfigurazioa eta disposizioa aurrerago ikusiko da, 3.4.7 Sinkronizatzaileak atalean.

Atzerako martxa disposizio berezi bat dauka, honetan pinioi interkalatu bat agertzen da, eta honen funtzioa bitarteko ardatza eta ardatz sekundario noranzko berdinean biratzea ahalbidetzea da. Horrexegatik, atzera martxako engranajeak azkenerako utziko dira, jakinda denean bitarteko eta sekundarioko ardatzean distantzia.



3.8 Irudia: atzeko martxa

3.4.2 TRANSMISIO ERLAZIOAK

Gurpilaren abiadura angeluarra ω_g motorraren birabarkiaren abiadura angeluarraren ω_m funtzioan eta transmisio erlazioen i eta i_{dif} . araberan funtzioan *:

$$\omega_g = \omega_m \cdot i_i \cdot i_{dif}.$$

3.10 Formula

ω_g : gurpilaren abiadura angeluarra [rpm]

ω_m : motorraren abiadura angeluarra [rpm]

i_i : martxa bakoitzaren erlazioa [-]

i_{dif} : multzo diferentzialaren erlazioa [-]

*kontutan izan behar da transmisio erlazioa bi modutan adieraz daiteke $i = \frac{\omega_r}{\omega_m}$ edo $i = \frac{\omega_m}{\omega_r}$.

Lehendabiziko gauza konprobatuko da web-orrialdetik hartutako diferentzialaren transmisio erlazioa egokia dela autoak daukan ezaugarri teknikoekin. Horretarako hurrengo formulak erabiltzen dira:

$$i_d = \frac{n_{max.pot.}}{i_6 \cdot n_d}$$

3.11 Formula

$$n_d = \frac{V_{max.}}{\pi \cdot \Phi_{gur.}}$$

3.12 Formula

Non:

i_d : diferentzialaren transmisio erlazioa

$n_{max.pot.}$: erreboluzio maximoak potentzia maximoam [rpm]

n_d : diferentzialren erreboluzioak [rpm]

i_6 : 6^a martxako transmisio erlazioa

$V_{max.}$: autoaren abiadura maximoa $\left[\frac{Km}{h}\right]$

$\Phi_{gur.}$: gurpilaren diametroa [m]

$\Phi_{gur.}$ aurrean azaltzen da nola lortzen den datu hau. Beste datu guztiak hasierako datuen tauletan datozte.

$$n_d = \frac{224 \frac{Km}{h} \cdot \frac{1000 m}{1 Km} \cdot \frac{1 h}{60 min}}{\pi \cdot (0,6209 \cdot 0,95)} = 2014,66 \text{ rpm}$$

$$i_d = \frac{4000 \text{ rpm}}{0,645 \cdot 2014,66 \text{ rpm}} = 3,078$$

Ikusi daitekeenez lortutako diferentzialaren transmisio erlazioa bat dator web-orrialdetik hartutako balioarekin. Autoak daukan datu teknikoekin bat dator eta balio egokia da, orain kutxa aldagailuaren kalkuluekin hasi daiteke.


Transmisio erlazioak autoaren fabrikanteak datu teknikoekin batera emandakoak erabiliko dira

	ω_r/ω_m	ω_m/ω_r
$i_{dif.}$	0,3249	3,077:1
i_1	0,24987	4,002:1
i_2	0,4742	2,109:1
i_3	0,7246	1,38:1
i_4	1	1:1
i_5	1,2804	0,781:1
i_6	1,5504	0,645:1
$i_{A.M}$	0,2742	3,647:1

3.5 Taula: transmisio erlazioak

Orain, autoak erlazio horiekin martxa bakoitzean izan dezakeen abiadura kalkulatu da.

Autoak daraman gurpila hurrengo da:



3.9 Irudia: gurpilaren dimentsioak

$$\phi_{gur.} = 16'' \cdot \frac{25,4 \text{ mm}}{1''} + 2 \cdot 0,55 \cdot 195 = 620,9 \text{ mm reposoan}$$

Baina hori ez da errealitatean autoak izango duen diametroa, lortutako diametroa gurpila reposoan izango zuen diametroa da. Baina gurpilak autoan montatzean, hauek autoaren pisua jasaterakoan ez dute izango diámetro hori. Nola oso zaila da hori kalkulatzea, balio aproximatu bat lortzen da aurreko diametroa bider 0,95 eginda.

$$\phi_{gur.} = 620,9 \cdot 0,95 = 589,855 \text{ mm}$$

Kalkual errazteko k konstante balioa kalkulatu da:

$$k = \frac{\pi \cdot \phi_{gur.} \cdot 60}{1000} = \frac{\pi \cdot 0,589855 \cdot 60}{1000} = 0,11$$

Hurrengo formula erabiliz abiadurak lortzen dira:

$$v_i = \frac{n \cdot k}{i_i \cdot i_{dif.}}$$

3.13 Formula

n : *abiadura angeluarra [rpm]*

k : *konstantea [-]*

i_i : *martxa bakoitzaren erlazioa [-]*

$i_{dif.}$: *multzo diferentzialaren erlazioa [-]*

Martxa bakoitzeko abiadura kalkulatu da 3.6 formula bitartez, lehenengoak motorrak 1000 rpm-tara birata martxa bakoitzak izango lukeen abiadura da. Eta bigarren kalkuluan autoak martxa bakoitzean motorrak potentzia maximora birata har dezakeen abiadura maximoa da.

Motorrak 1000 rpm-tara:

$$v_1 = 9,03 \text{ km/h}$$

$$v_2 = 17,13 \text{ km/h}$$

$$v_3 = 26,18 \text{ km/h}$$

$$v_4 = 36,14 \text{ km/h}$$

$$v_5 = 46,27 \text{ km/h}$$

$$v_6 = 56,02 \text{ km/h}$$

$$v_{A.M} = 9,9 \text{ km/h}$$

Motorrak potentzia maximora, 4000 rpm-tara:

$$v_1 = 36,12 \text{ km/h}$$

$$v_2 = 68,52 \text{ km/h}$$


$$v_3 = 104,72 \text{ km/h}$$

$$v_4 = 144,56 \text{ km/h}$$

$$v_5 = 185,08 \text{ km/h}$$

$$v_6 = 224 \text{ km/h}$$


$$v_{A.M} = 39,7 \text{ km/h}$$



3.10 Irudia: Autoaren martxen abiadurak

3.4.3 IBILGAILUAREN GAITASUNA

Atal honetan 3.2 atalean lortutako erresistentziak autoak definitutako transmisio erlazioekin gainditzen badituen konprobatu behar da. Horretarako, motorretik gurpiletara transmititutako pare pare erresistentea baino handiago izan behar da.



3.11 Irudia: gurpilan agertzen diren momentuak

Autoak ibiltzeko gaitasuna izateko : $M_{gur} > M_{erresistente}$

M_{gur} : gurpileari transmititutako parea [$N \cdot m$]

$M_{erresistente}$: agertzen de pare erresistentea [$N \cdot m$]

Konprobaketa egiteko 1. eta 6. martxa erabiliko dira, bi konprobaketa hauek orokorrenak dira, bi hauek gainditzen baditu, beste martxak ere gaindituko dituzte. Zeren eta 1. martxa pendiente maximoa igotzeko diseinatuta dago eta 6. martxak abiadura maximoa lortzeko errepide lau batean.

Agertzen diren erresistentziaren balioak 3.2 atalean lortutakoak dira.

1.martxaren konprobaketa:

Agertzen diren erresistentzia guztien batura izango da autoan agertzen den erresistentzia totala:

$$F_{TOT1} = F_{rd} + F_{ald} + F_{in1} + F_{ra} = 24,05 + 740 + 48,41 + 120,855 = 933,315 \text{ Kg} = 9155,82 \text{ N}$$

Gurpilean agertzen de pare erresistentea hurrengoa da:

$$M_{erresistente1} = F_{TOT1} \cdot r$$

3.14 Formula

$$M_{errresistente1} = 9155,82 \cdot 0,2949 = 2700 \text{ N} \cdot \text{m}$$

Motorrak gurpilei transmititzen duen potentzia galera txikiak dauzka, marruskadura indarrak eta transmisioan agertzen diren inertiengatik dela eta:

$$P_{gur} = P_{mot} \cdot \mu$$

3.15 Formula

$$M_{gur} \cdot \omega_{gur} = M_{mot} \cdot \omega_{mot} \cdot \mu$$

3.16 Formula

$$\frac{\omega_r}{\omega_m} = \frac{M_{mot}}{M_{gur}} \cdot \mu$$

3.17 Formula

ω_g : gurpilaren abiadura angeluarra [rpm]

ω_m : motorraren abiadura angeluarra [rpm]

M_{mot} : motor parearen momentua [$N \cdot m$]

M_{gur} : gurpilei transmititutako momentua [$N \cdot m$]

μ : galerak marruskaduragatik, 0 – 1 artean [-]

3.10 formula erabiliz:

$$\omega_g = \omega_m \cdot i_i \cdot i_{dif.}$$

$$\frac{\omega_g}{\omega_m} = i_i \cdot i_{dif.}$$

Bi formulak berdinduz:

$$\frac{M_{mot}}{M_{gur}} \cdot \mu = i_i \cdot i_{dif.}$$

$$M_{gur} = \frac{M_{mot} \cdot \mu}{i_i \cdot i_{dif.}}$$

Gogoratu behar da $i_1 = 0,24987$ eta $i_d = 0,3249$ direla.

Orduan:

$$M_{gur1} = \frac{320 \cdot 0,95}{0,24987 \cdot 0,3249} = 3744,64 \text{ N} \cdot \text{m}$$

$$M_{gur1} = 3744,64 \text{ N} \cdot \text{m} > M_{erresistente1} = 2700 \text{ N} \cdot \text{m}$$

Aurreko ekuazioa betetzen da, orduan 1. martxako transmizio erlazioa egokia da autoan agertzen diren erresistentziak ekiditzeko eta autoa ibiltzeko.

6. martxaren konprobaketa:

Aurreko kasuan bezala agetuko den erresistentzia totala 3.2 atalean lortutako balioen batuketa izango da, baina kasu honetan ez da kontuan hartuko F_{ald} , martxa hau ez baitago diseinatuta aldapak igotzeko.

$$F_{TOT6} = F_{rd} + F_{in6} + F_{ra} = 24,05 + 7,83 + 120,855 = 152,735 \text{ Kg} = 1498,33 \text{ N}$$

$$M_{erresistente6} = F_{TOT6} \cdot r$$

$$M_{erresistente6} = 1498,33 \cdot 0,2949 = 441,86 \text{ N} \cdot \text{m}$$

Baina kasu honetan motorrak erregimen potentzia maximoan dago.

$$M_{mot} = \frac{P_m}{\omega_m} \rightarrow M_{mot} = \frac{105 \text{ kW} \cdot \frac{1000 \text{ W}}{1 \text{ kW}}}{4000 \text{ rpm} \cdot \frac{2\pi \text{ rad}}{1 \text{ bira}} \cdot \frac{1 \text{ min}}{60 \text{ s}}} = 250,67 \text{ N} \cdot \text{m}$$

Gogoratu behar da $i_6 = 1,5504$ eta $i_d = 0,3249$ direla.

$$M_{gur6} = \frac{250,67 \cdot 0,95}{1,5504 \cdot 0,3249} = 472,75 \text{ N} \cdot \text{m}$$

$$M_{gur6} = 472,75 \text{ N} \cdot \text{m} > M_{erresistente6} = 441,86 \text{ N} \cdot \text{m}$$

Aurreko ekuazioa betetzen da, orduan 6. martxako transmizio erlazioa egokia da autoan martxa horretan agertzen diren erresistentziak ekiditzeko eta autoa ibiltzeko.

Lehenengo eta seigarren martxen gaitasun konprobaketa eginda, esan daiteke autoak aurrean definitutako erresistentziak gainditzeko gai dela eta baldintza horietan ibiltzeko gai izango dela.

3.4.4 ENGRANAJEAK

Abiadura kaxa honetan biraketaren desmultiplikazioa sinkronizatuta eta uneoro engranatuta dauden engranaje zilindriko helikoidalen bikoteen bitartez burutzen da. Engranaje helikoidaletan hortzak zeharrek dira eta gurpilen arteko engranea luzeagoa eta progresiboagoa da, beraz, horzdun gurpilek presio txikiagoa jasan eta transmisioak erresistentzia handiagoa du. Atzera martxa, ordea, gutxiagotan erabiltzen da eta hortz zuzeneko gurpilak behar ditu bere tarteko gurpila desplazatzean besteekin engranatu ahal izateko.

3.4.4.1 ENGRANAJEEN HORTZ KOPURUA

Kutxa aldagailuko gurpilen hortzen kopurua determinatzeko, martxen erredukzioez gain, kutxako diseinu eta eraikitze baldintzak bete behar dira. Horzdun gurpilak ardatz paralelotan egonda, beren arteko distantzia konstante mantendu eta engranajeak normalak edo 'A-cero' motakoak direla suposatu da. Engranaje hauetan ardatzen arteko distantzia jatorrizko erradioen batura da eta engranaje helikoidaletan balio hori moduluaren, hortzen inklinazio angeluaren eta hortz kopuruaren menpe dago.

Engranajeen hortz kopurua definitzeko kontuan eduki behar da engranaje bikoteen ardatzen arteko distantzia d eta helize angeluak β berdina direla guztientzat.

$$d = R + R' = \frac{m}{2} \cdot \frac{z + z'}{\cos \beta}$$

3.18 Formula

d : gurpil erdiguneen arteko distantzia [mm]

R : pinioiaren erradio primitiboa [mm]

R' : koronaren erradio primitiboa [mm]

m : modulua [mm]

z : pinioiaren edo gurpil txikiaren hortz kopurua

z' : koronaren edo gurpil handiaren hortz kopurua

β : helize angelua [°]

Bi gurpilek beren artean ondo akoplatzeko eta engranatzeko, nahitaez modulu (pausu edo hortz neurriarekin erlazionatua) eta hortzen angelu berdinak izan behar dituzte.

Hortzen inklinazio edo helize angeluak (β) hortzen forma ezaugarritzen du eta handitu ahala, aldi berean engranaten duten hortz kopurua handiagoa eta transmisioa leunagoa bada ere, indar axial altuagoak sortu eta errendimendua txarragoa da. Orokorrean bere balioa 10-30° bitartekoa izaten da eta zuzenketarik behar ez den bitartean, arautua den 20°-ko inklinazio angelua hartu da.

Ardatzen arteko distantzian eraginik ez duen arren, gurpil zuzenen nahiz helikoidalaren engrane egokirako beren hortzen arteko kontaktuko presio edo engrane angeluak (α) ere berdinak izan behar dira. Angelu honek gurpilen arteko esfortzuen norabidea zehazten du eta bere ohiko balio normalizatuak 20° eta 25° izanda, 20°-ko presio angelua erabili da.

Gauzak horrela, engrane arazorik ez egoteko eta egin beharreko zuzenketak murrizteko, abiadura kaxako gurpil guztiek modulu eta angelu berdinak dituztela kontsideratu da, beraz, engranaje bakoitzeko hortz kopuruaren batura konstantea izan beharko da.

$$z + z' = \frac{2 \cdot d \cdot \cos \beta}{m} = kte$$

3.19 Formula

$$z_1 + z'_1 = z_2 + z'_2 = z_3 + z'_3 = z_4 + z'_4 = z_5 + z'_5 = z_6 + z'_6 = kte$$

Gurpilen hortz kopurua tarte jakinean egon behar da; batetik, hortz gehiegi izateak tamaina eta pisua handituko lituzke eta bestetik, hortz gutxiegi izateak erresistentzia murriztuko eta zizelkatzean interferentziak egingo lituzke. Zehazki, 'Acero' motako eta 20°-ko presio angeluko gurpil zuzenen gutxieneko hortz kopuru teorikoa 17 da, zenbait kasu praktikotan eta funtzionamendu nahiz diseinu baldintzek exijitzen dutenean, 14 izan daitekeela.

Gurpil zuzenen gutxieneko hortz kopuru teorikoa, aldiz, 14 da eta hortz birtualen edo zuzen baliokideen 3.20 formularekin ateratzen dena. Honek gurpil helikoidal bati dagokion gurpil zuzenaren hortz kopuru baliokidea definitzen du.

Engranaje batek interferentziak ez jasatzeko, hurrengoa bete behar da:

$$z_v = \frac{z}{\cos^3 \beta} \geq 14$$

z_v : hortz kopuru birtuala

z : hortz kopuru erreala

β : helize angelua [°]

Ahal den neurrian engranaje beraren gurpilen hortz kopuruak elkarren lehenak izan behar dira hortz berdinak denbora gutxiagoz elkarrekin kontaktuan egoteko eta higadura irregularra ekiditeko.

Engranajeen dimentsioak eta geometria beraien bete beharren arabera azteru eta gero, gurpilen hortz kopurua haztamuz edo tanteoz determinatzen da. Aurreko baldintzak betetzea ezinbestekoa izaten da transmisio erlazio zehatzak lortzeko eta errore hori ahalik eta gehien minimizatu behar da. Horretarako, hasteko, hasierako erredukzioa finkatu da, ondoren martxa bakoitzeko hortz kopurua zehazteko.

- Hasierako erredukzioa

Kutxa aldagailuaren ardatz primario eta bitartekoaren artean hasierako erredukzio konstante bat egongo da, bere balio txikia, kutxa aldagailuko erredukzioa bi etapatan burutzea ahalbidetzen du.

Eaton Fuller motako kutxa aldagailua hartuta, zein antzeko ezaugarriak ditu, hasierako gurpila, 1. gurpila, 28 hortz dituela supoastu da. Modu honetan, engranajearen transmisio erlazioa nahiko txikia dela eta aurretik aipaturiko irizpideak kontuan hartuz, 3.6 taulan konbinazio posible guztiak aztertu dira 2. gurpilaren hortz kopuru egokia hautatzeko.

z_1	z_2	Batura	Erredukzioa
28	30	58	1,071
28	31	59	1,107
28	32	60	1,143
28	33	61	1,179
28	34	62	1,214
28	35	63	1,25
28	36	64	1,286

3.6 Taula: Hasierako erredukzioaren gurpilak

Aurreko konbinaketa posibleen artean aukeratutakoa erabili da zatiketean bi dezimal bakarrik dituelako, eta hurrengo kalkuluetan errore minimoa handitu ez dezan. Hasierako

erredukzio hau definitu ondoren, martxa bakoitzeko hortz kopurua kalkulatu da, hasierako erredukzioa eta ardatzen arteko distantzien (hortz kopuru konstante) menpe.

-1. martxa

Martxa honek daukan transmisio erlazio totala 4,002-koa dela eta hortzen batura 63-koa dela hartuz, hortz kopuru egokia hautatzeko errore gutxien daukana hautatu da hurrengo taulan agertzen den konbinaketa posibleen artean.

$$i_1 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_4}{z_3} = \frac{35}{28} \cdot \frac{z_4}{z_3} = 4,002 \rightarrow \frac{z_4}{z_3} = 3,2016$$

$$z_3 + z_4 = 63$$

z_3	z_4	Batura	Erredukzioa	Errore absolutua
14	49	63	3,5	$298,4 \cdot 10^{-3}$
15	48	63	3,2	$1,6 \cdot 10^{-3}$
16	47	63	2,938	$263,6 \cdot 10^{-3}$

3.7 Taula: 1º martxaren gurpilak

Bigarren aukera egokiena da, izan ere, eraikitze eta diseinu baldintzak bete eta errore txikiena du. 1. martxaren transmisio erlazio berria aukeratutako hortz kopuruekin hurrengoa da:

$$i_1 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_4}{z_3} = \frac{35}{28} \cdot \frac{48}{15} = 4$$

-2. martxa

Martxa honek daukan transmisio erlazio totala 2,109-koa dela eta hortzen batura 63-koa dela hartuz, hortz kopuru egokia hautatzeko errore gutxien daukana hautatu da hurrengo taulan agertzen den konbinaketa posibleen artean.

$$i_2 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_6}{z_5} = \frac{35}{28} \cdot \frac{z_6}{z_5} = 2,109 \rightarrow \frac{z_6}{z_5} = 1,6872$$

$$z_5 + z_6 = 63$$

z_5	z_6	Batura	Erredukzioa	Errore absolutua
23	40	63	1,739	$51,8 \cdot 10^{-3}$
24	39	63	1,625	$62,2 \cdot 10^{-3}$
25	38	63	1,52	$167,2 \cdot 10^{-3}$

3.8 Taula: 2º martxaren gurpilak

Lehenengo aukera egokiena da, izan ere, eraikitze eta diseinu baldintzak bete eta errore txikiena du. 2. martxaren transmisio erlazio berria aukeratutako hartz kopuruekin hurrengoa da:

$$i_2 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_6}{z_5} = \frac{35}{28} \cdot \frac{40}{23} = 2,174$$

-3. martxa

Martxa honek daukan transmisio erlazio totala 1,308-koa dela eta hortzen batura 63-koa dela hartuz, hartz kopuru egokia hautatzeko errore gutxien daukana hautatu da hurrengo taulan agertzen den konbinaketa posibleen artean.

$$i_3 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_8}{z_7} = \frac{35}{28} \cdot \frac{z_8}{z_7} = 1,308 \rightarrow \frac{z_8}{z_7} = 1,0464$$

$$z_7 + z_8 = 63$$

z_7	z_8	Batura	Erredukzioa	Errore absolutua
30	33	63	1,1	$53,6 \cdot 10^{-3}$
31	32	63	1,032	$14,4 \cdot 10^{-3}$
32	31	63	0,969	$77,4 \cdot 10^{-3}$

3.9 Taula: 3º martxaren gurpilak

Bigarren aukera egokiena da, izan ere, eraikitze eta diseinu baldintzak bete eta errore txikiena du. 3. martxaren transmisio erlazio berria aukeratutako hartz kopuruekin hurrengoa da:

$$i_3 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_8}{z_7} = \frac{35}{28} \cdot \frac{32}{31} = 1,29$$

-4. martxa

Martxa honek daukan erredukzioa 1-ekoa da, hau da, transmisio zuzena deritzon martxa. Martxa honek ez du engranajeen beharrik, kutxa aldagailuaren ardatz primarioa sekundarioarekin zuzenean elkartuz lortzen den martxa da.

-5. martxa

Martxa honek daukan transmisio erlazio totala 0,781-koa dela eta hortzen batura 63-koa dela hartuz, hertz kopuru egokia hautatzeko errore gutxien daukana hautatu da hurrengo taulan agertzen den konbinaketa posibleen artean.

$$i_5 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_{10}}{z_9} = \frac{35}{28} \cdot \frac{z_{10}}{z_9} = 0,781 \rightarrow \frac{z_{10}}{z_9} = 0,6248$$

$$z_9 + z_{10} = 63$$

z_9	z_{10}	Batura	Erredukzioa	Errore absolutua
38	25	63	0,6578	$33 \cdot 10^{-3}$
39	24	63	0,615	$9,8 \cdot 10^{-3}$
40	23	63	0,575	$49,8 \cdot 10^{-3}$

3.10 Taula: 5^o martxaren gurpilak

Bigarren aukera egokiena da, izan ere, eraikitze eta diseinu baldintzak bete eta errore txikiena du. 5. martxaren transmisio erlazio berria aukeratutako hertz kopuruekin hurrengoa da:

$$i_5 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_{10}}{z_9} = \frac{35}{28} \cdot \frac{24}{39} = 0,77$$

-6. martxa

Martxa honek daukan transmisio erlazio totala 0,645-koa dela eta hortzen batura 63-koa dela hartuz, hertz kopuru egokia hautatzeko errore gutxien daukana hautatu da hurrengo taulan agertzen den konbinaketa posibleen artean.

$$i_5 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_{12}}{z_{11}} = \frac{35}{28} \cdot \frac{z_{12}}{z_{11}} = 0,645 \rightarrow \frac{z_{12}}{z_{11}} = 0,516$$

$$z_{11} + z_{12} = 63$$

z_{11}	z_{12}	Batura	Erredukzioa	Errore absolutua
43	20	63	0,465	$51 \cdot 10^{-3}$
42	21	63	0,5	$16 \cdot 10^{-3}$
41	22	63	0,537	$21 \cdot 10^{-3}$

3.11 Taula:6º martxaren gurpilak

Bigarren aukera egokiena da, izan ere, eraikitze eta diseinu baldintzak bete eta errore txikiena du. 6. martxaren transmisio erlazio berria aukeratutako hortz kopuruekin hurrengoa da:

$$i_6 = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_{12}}{z_{11}} = \frac{35}{28} \cdot \frac{21}{42} = 0,625$$

	Transmisio erlazioa		Hortz kopurua	
	Lehen	Ondoren	Pinioia	Korona
1. martxa	4,002	4	$z_3 = 15$	$z_4 = 48$
2. martxa	2,109	2,174	$z_5 = 23$	$z_6 = 40$
3. martxa	1,308	1,29	$z_7 = 31$	$z_8 = 32$
4. martxa	1	1		
5. martxa	0,781	0,77	$z_9 = 40$	$z_{10} = 23$
6. martxa	0,645	0,625	$z_{11} = 42$	$z_{12} = 21$

3.12 Taula: gurpilak eta transmisio erlazioak

3.4.4.2 ENGRANAJEEN MODULUA

Moduluaren kalkulua gehienetan gurpil txikiarentzat egiten da, bira eta lan gehien egiten duena baita. Gurpil txikiak (pinioiak) gurpil handiak (koronak) baino neke eta higadura handiago jasaten du eta modulu handiagoa behar du, beraz, gurpil txikiarentzat modulu kalkulatu gurpil handiarentzat ere baliagarria da.

“FRATSCHNER, O. Elementos de máquinas. Editorial Gustavo Gili, Barcelona, 1969.”
liburuaren arabera, engranaje baten moduluaren kalkulurako ezinbestekoa da hortzen saihets edo flankoen gehiegizko higadura eta hortzen esfortzu makurtzaileengatiko (flectoreengatiko)

haustura aztertzea. Hori egiteko, lehenik, iraupen eta higadurarako kalkulu zehatza burutzen da eta ondoren, erresistentziarako frogapen edo kalkulu hurbildua egiten da.

MODULUAREN KALKULUA IRAUPEN ETA HIGADURARA


Iraupen eta higadurarako kalkulua Hertz-en teorian oinarrituta dago, gainazal kurbatuzko bi gorputz elastikoren arteko kontaktua aztertzen duena. Horretarako kontaktuan dauden bi zilindro eren sortzaileetatik elkar zanpatzen dira indar banatu bidez eta horren presio maximoa definitzen da.

$$P_{max}^2 = 0,35 \cdot \frac{F}{b} \cdot \frac{E_1 \cdot E_2}{E_1 + E_2} \cdot \left(\frac{1}{r_1} \pm \frac{1}{r_2} \right)$$

3.21 Formula

Engranaje zuzen batean gurgipen bi hertz kontaktuan egonda, beren arteko presio maximoa antzera kalkulatzen da:

$$P_{max}^2 = 0,35 \cdot \frac{F}{b} \cdot \frac{E_1 \cdot E_2}{E_1 + E_2} \cdot \frac{1}{r_1 \cdot \sin \alpha} \left(\frac{i \pm 1}{i} \right)$$



3.12 Irudia: hortzen arteko kontaktua

3.21 formularen zeinua positiboa izango da hortzen kontaktua ganbila (kanpokoa) denean eta negatiboa izango da kontaktua ahurra (barnekoa) denean.

Praktikan, Stribeck-ek definituriko errodaturako presio karakteristikoaren (k) formulaz baliatzen da eta azken hau garatuz, momento bihurtzaile edo tortsorearen (parearen) eta moduluaren menpe adierazten da.

$$k = \frac{F}{2b} \cdot \frac{1}{r_1 \cdot \sin \alpha} \left(\frac{i \pm 1}{i} \right) = \frac{F_t \cdot (i \pm 1)}{b \cdot d_1 \cdot \sin \alpha \cdot \cos \alpha \cdot i} = \frac{2 \cdot T_1 \cdot (i \pm 1)}{b \cdot d_1^2 \cdot \sin \alpha \cdot \cos \alpha \cdot i} =$$

$$= \frac{2 \cdot T_1 \cdot (i \pm 1)}{m^3 \cdot z^2 \cdot \psi \cdot \sin \alpha \cdot \cos \alpha \cdot i}$$

3.22 Formula

Errodaturako presio karakteristiko hori materialaren, iraupenaren eta funtzionamendu baldintzen araberrako balio onargarri baten (k_{onar}) azpitik egon behar da hutsegiterik ez gertatzeko. Modu honetan, 3.22 formulatik modulu askatzen da eta beharrezko unitate aldaketak eginez gero, higaduragatiko hutsegitea ekiditeko modulu minimoa lortzen da.

$$m \geq \sqrt[3]{\frac{200 \cdot T_1 \cdot (i \pm 1)}{k_{onar} \cdot z_1^2 \cdot \psi \cdot \sin \alpha \cdot \cos \alpha \cdot i}}$$

3.23 Formula

Non:

m : modulu minimoa [cm]

T_1 : gurpil txikiaren momentu tortsorea edo pareia [Kg · m]

i : transmizio erlazioa [-]

k_{onar} : errodaturako presio karakteristiko onargarria $\left[\frac{Kg}{cm^2} \right]$

z_1 : gurpil txikiaren hortz kpurua [-]

ψ : engranajearen gidatze faktorea [-]

$\alpha = 20^\circ$: hortzen presio angelua [°]

Stribeck-en ekuazioan i transmizio erlazioa ezin da $i < 1$, kasu honetann $i \rightarrow \frac{1}{i}$. 5 eta 6. martxekin gertatzen da, zeren eta martxa hauek erlazio transmisioa bat baino txikiagoa dute.

Engranaje helikoidaletan ere 3.12 formula aplikagarria da, baina hortz helikoidaletara egokitzeke, 3.8 formulako hortz birtualen kontzeptua ezartzen da. Nola engranaje helikoidaletan

engrana hobea denez, errodadura presio eraginkorra teorikoaren %75-85 bitartekoa da eta kasu honetan 0,8-koa den higadurako hobekuntza koefiziente edo faktorea (C_d) aplikatu da.

$$m_r \geq \sqrt[3]{\frac{200 \cdot C_d \cdot T_1 \cdot (i \pm 1) \cdot \cos^6 \beta_\alpha}{k_{onar} \cdot z_1^2 \cdot \psi \cdot \sin \alpha_r \cdot \cos \alpha_r \cdot i}}$$

3.24 Formula

m_r : modulu erreal edo normal minimoa [cm]

$C_d = 0,8$: higadurako hobekuntza koefizientea [-]

$\beta_\alpha = 20^\circ$: hortzen helize angelu aparentea [°]

$\alpha_r = 20^\circ$: hortzen presio angelu erreala [°]

Fabrikatzailearen eta antzeko ibilgailuen ezaugarriak jarraituz, transmisioaren gutxieneko bizitza teknikoa (erabilgarria) 500.000km edo 6250 ordu (80 km/h-ko batez besteko abiaduran) ingurukoa dela estimatu da. Ordu hauek kutxa aldagailuren martxa desberdinen artean banatu dira. Atzeko martxa ez da asko erabiltzen eta 1. martxa eta 2. martxa autoa higiduran jartzeko erabiltzen dira, horrexegatik ordu gutxiago lan egingo dute, 3. eta 4. martxak hirietan eta errepide sekundarioetan dira gehien erabiltzen direnak eta 5. eta 6.martxak oso erabiliak dira autobia eta autopistatan. Hurrengo taulan ikus daiteke egindako ordu banaketa:

Martxa	Portzentaia	Orduak
1	%8	500
2	%15	937,5
3	%20	1250
4	%20	1250
5	%15	937,5
6	%20	1250
A.M	%2	125

3.13 Taula: martxen ordu zerbitzuak

Gurpilen fabrikaziorako 16MnCr5 altzairu aleazio zementatu eta tenplatua aukeratu da bere gainazaleko gogortasun eta higaduraren aurkako erresistentzia handiagatik. 3.14 taulan transmisioko material desberdinen propietate mekanikoak agertzen dira.

Materiala	DIN Izendapena	Tratamendua	Trakzio erresist. σ_B	Isurpen limite minimoa σ_s	Brinell gogortasuna DB	Neke erresist. flexio alternatiboan $\sigma_{Bw} \approx$	Esfortzu onarg. abiadura medio eta altuetan $\sigma_{B onarg.} \approx$
			kg/mm ²	kg/mm ²	kg/mm ²	kg/mm ²	kg/cm ²
Burdinurtu grisa	GG-18 GG-22 GG-26		≥ 18 ≥ 22 ≥ 26		150-170 180-220 200-220	$\pm 8,5$ ± 11 ± 12	350-450 450-550 550-650
Altzairu moldatua	GS-45 GS-52	suber. suber.	≥ 45 ≥ 52	22 25	125-160 145-190	± 20 ± 22	650-750 750-900
Makinentzak o altzairu aleatu gabea	St 50 St 60 St 70		50-60 60-70 70-85	27 30 35	145-174 174-205 205-248	± 24 ± 28 ± 33	850-1100 1000-1250 1200-1400
Altzairu zementatua aleatu gabea	Ck 15	tenp.	50-65 ¹⁾	30	600 ²⁾	± 25	1000-1250
Altzairu hobetua aleatu gabea	Ck 45 Ck 60	hob. hob.	65-80 75-90	40 49	190-230 217-265	± 30 ± 35	1100-1300 1300-1500
Altzairu manganeso hobetua	30Mn5 37MnSi5 42MnV7	hob. hob. hob.	80-95 90-105 100-120	55 65 80	230-270 260-300 290-350	± 38 ± 45 ± 50	1500-2000 2000-3000 3000-4000
Altzairu zementatua aleatua	16MnCr5 20MnCr5 15CrNi6 18CrNi8 14NiCrMo13-4	tenp. tenp. tenp. tenp. tenp.	80-110 100-130 90-120 ³⁾ 120-145 105-130	60 70 65 80 100	600 ²⁾	± 43 ± 47 ± 45 ± 50 ± 50	1900-3000 2200-3400 2000-3000 3000-4000 3000-4000
Altzairu hobetua aleatua	34Cr4 41Cr4 50CrV4 50CrMo4 51CrMoV4	tenp. tenp. tenp. tenp. tenp.	130-155 ³⁾ 155-180 ³⁾ 150-175 ⁴⁾ 150-174 ⁴⁾ 140-170	100 130 130 130 120	380-450 450-500 430-495 430-495 430-495	± 50	3000-4000

¹⁾ Nukleoaren erresistentzia

²⁾ Balio hauek gainazal geruza tenplatuentzat balia ganiak dira.

³⁾ Ziamuro bainuan tenplatu.

⁴⁾ Olioan tenplatu.

Kalitate altuko material sintetikoak, ehun gogortuak eta egur xafla prentsatuak kasu, GG-18 bezala har daitezke.

3.14 Taula: materialen propietate mekanikoak

Engranajeen arteko gidatze edo engranearen kalitate onekoa aukeratu da, 3.15 taularen bidez gidatze faktorea 10 dela kontsideratu da.

Engranajeen gidatze faktoreak (ψ)
Gidatze kaskarra $\rightarrow 5 \leq \psi \leq 8$
Gidatze ona $\rightarrow 10 \leq \psi \leq 12$
Gidatze bikaina $\rightarrow 15 \leq \psi \leq 25$

3.15 Taula: engranajeen gidatze faktoreak

Errodadura presio karakteristiko (k_{onar}) onargarria determinatzeko, 3.16 taulan gurpil txikiaren materiala eta abiaduraz baliatzen dira. Zerbitzu iraupena 5000 ordukoa ez den arren, ondoren koefiziente bat aplikatzen zaio.

Pinoi edo koroaren materiala	Brinell gogortasuna DB [kg/mm ²]	Pinoi edo koroaren bira-kopurua minutuko										k _{min} *
		10	25	50	100	250	500	750	1000	1500	2500	
GG-18	170	32	24	19	15	11	8,8	7,7	---	---	---	3,5
GG-26	220	60	44	35	28	21	16,5	14,4	13	11,5	---	7
GS edo St 42	125	35	26	20	16	12	9,5	8,3	7,5	6,6	5,6	4,3
St 50	155	53	39	31	25	18	14	12,5	11,5	10	8,5	5,3
St 60	180	73	53	42	34	25	20	17	16	14	11	6,7
St 70	210	98	72	57	45	33	27	23	21	18,5	15,5	9,0
Altzairu Mn hob. 80-95 kg/mm ²	230	---	87	69	55	41	32	28	26	22	19	22
Altzairu Mn hob. 90-105 kg/mm ²	260	---	---	89	70	52	41	36	33	28	24	30
Altzairu aleatu hob. (tenplatua)	450	---	---	265	210	155	120	105	95	83	70	60
Altzairu zementatua aleatua	600	---	---	485	370	270	215	190	170	150	125	80

*Balio haurp_{0,75} σ_s-ri (σ_s=isurpen limitea) dagokio eta esperientziaren arabera, ezta abiadura altuetan ere ez da murriztu behar kalkuluan biraketa momentu erreala jartzen bada.

3.16 Taula: k_{onar}-ren balioak [Kg/cm²] 5000 orduko iraupenerako

Aurreko taulan (k_{onar5000}) lortu da, (k_{onar}) lortzeko, engranaje bakoitzak ordu zerbitzu ezberdinak izango ditu. 5000 ordu zerbitzu ezberdina daukaten engranajeek, k_{onar,i} = φ_i · k_{onar5000} egin behar da. φ koefizientea 3.17 taulatik lortzen da. Taulan agertzen ez diren ordu balioak interpolatuz lortzen dira.

Zerbitzu orduak	150	312	625	1200	2500	5000	10000	40000	80000	150000
φ	3,2	2,5	2	1,6	1,25	1	0,8	0,5	0,4	0,32

3.17 Taula: Zerbitzu faktoreak (φ)

Hau guztia jakinda, moduluaren kalkulurako, pare maximoko egoera hartzen da eta kutxa aldagailuko engranaje guztietan kalkulu berdina egin behar da.

1.martxa:

Martxa honen gupil txikia (3.gupila) bitarteko ardatzean kokatzen da, hasierako erredukziotik igarotako momentua eta biraketa abiadura iritsiko zaio.

$$T_{3max} = T_{mmax} \cdot i_{he} = 320 \cdot \frac{35}{28} = 400 \text{ N} \cdot \text{m} = 40,77 \text{ Kg}$$

$$n_{3Tmax} = \frac{n_{mTmax}}{i_{he}} = \frac{2500}{\frac{35}{28}} = 2000 \text{ rpm}$$

Gurpila altzairu alezio zementatu eta tenplatukoa da, 3.14 eta 3.16 taulen bidez errodadura presio karakteristikoko onargarria interpolazio linealaren bitartez eskuratzen da, biraketa abiadura eta zerbitzu orden menpe.

$$k_{1onar5000} \rightarrow \frac{2500 - 2000}{125 - x} = \frac{2500 - 1500}{125 - 150} \rightarrow k_{1onar5000} = 137,5 \text{ Kg/cm}^2$$

$$\varphi_1 \rightarrow \frac{625 - 500}{2 - x} = \frac{625 - 312}{2 - 2,5} \rightarrow \varphi_1 = 2,2$$

$$k_{onar1} = \varphi_1 \cdot k_{1onar5000} = 2,2 \cdot 137,5 = 302,5 \text{ Kg/cm}^2$$

Balio hauek jakina, 3.10 formularen balio guztiak ordezkatzuz 1.martxarren modulu minimoa lortzen da:

$$m_r \geq \sqrt[3]{\frac{200 \cdot 0,8 \cdot 40,77 \cdot \left(\frac{48}{15} + 1\right) \cdot \cos^6 20}{302,5 \cdot 15^2 \cdot 10 \cdot \sin 20 \cdot \cos 20 \cdot \frac{48}{15}}} = 0,2998 \text{ cm}$$

Engranaje baten modulu normalizatua egon behar da, iraupen eta higadurara gurpil guztien gutxieneko moduluak zehaztu ondoren, 3.18 taulan modulu normalizatu handiago hurbilena hartzen da. Azkenean modulu normalizatu handiena ezarriko da gurpil guztientzat. Kasu honetan SERIE I-eko moduluak aukeratu dira.

MODULU NORMALIZATUEN SERIEAK (mm-tan)			
SERIEA	I	II	III
	1	1,125	
I	1,25	1,375	
Serie gomendatua	1,5	1,75	
Lehentasunez erabili behar da	2	2,25	
	2,5	2,75	
II	3	3,5	3,25
Serie osagarria			3,75
	4	4,5	
III	5	5,5	
Serie berezia	6	7	6,5
Erabateko beharra duten salbuespeneko kasuetan soilik erabili behar da	8	9	
	10	11	
	12	14	
	16	18	
	20	22	
	25	28	
	32	36	
	40	45	
	50		

3.18 Taula: UNE 18005:1984 arauaren modulu normalizatuak

Prozedura berdina jarraitu behar da beste martxekin.

2.martxa:


Martxa	Gurpil txikia	z	Transmisio Erlazioa [-]	Ordu Zerbitzua [h]	T_{max} [Kg·m]	n_{Tmax} [rpm]	$k_{onar5000}$ [Kg/cm ²]	φ	k_{onar} [Kg/cm ²]	m_r [cm]	m_r Nominal [cm]
HE	1	28	1,25	1250	32,62	2500	125	1,59	198,75	0,235	0,25
1	3	15	3,2	500	40,77	2000	137,5	2,2	302,5	0,2998	0,3
2	5	23	1,739	937,5	40,77	2000	137,5	1,78	244,75	0,257	0,3
3	7	31	1,032	1250	40,77	2000	137,5	1,59	218,625	0,236	0,25
5	10	24	0,615	937,5	25,08	3250	80	1,78	142,4	0,26	0,3
6	12	21	0,5	1250	20,39	4000	80	1,59	127,2	0,265	0,3

3.19 Taula: Iraupen eta higadurarako moduluaren kalkulua gurpil txikietan

Beharrezkoa den modulu normalizatu handiena 3 mm-koa da eta hori engranaje guztiei ezartzen zaie.

MODULUAREN KALKULU HURBILDUA ERRESISTENTZIARA

Erresistentziarako kalkulu hurbildua materialen erresistentziaren teorian oinarrituta dago, hortza bere oinarrian landatuta dagoen habet bat bezala kontsideratzen da metodo hau ebazteko. Nola kalkulu konplexuak izaten dira, bi sinplifikazio egiten dira. Batetik, kasu kritikoenean aztertuz, indarra hortzaren muturrean aplikatzen dela, eta bestetik, indar makurtzailea (indar tangenziala) bakarrik izaten da kontuan, hau da, konpresio indarra (indar erradiala) mesprezatu egiten da.



3.13 Irudia: Hortzen gaineko indarra

Horretarako, momento makurtzaile batek gorputz batean sortzen duen tentsio makurtzailearen ekuazioa (Navier-en ekuazioa) aplikatu eta laukizuzen baten inertzia momentua erabiltzen da, formula indar tangenzialaren, moduluaren eta hortzaren forma faktorearen menpe adierazten da.

$$\sigma_b = \frac{M_f \cdot \frac{a}{2}}{I} = \frac{F_t \cdot m \cdot a}{\frac{1}{12} \cdot b \cdot a^3} = \frac{F_t}{\psi \cdot m^2} \cdot \frac{3}{y^2} = \frac{F_t}{\psi \cdot m^2} \cdot q$$

3.25 Formula

Tentsio makurtzaile hori materialaren tentsio makurtzaile onargarri (σ_{bonar}) baten azpitik egon behar da, eta baita ere esfortzu fletoreagatik hortzaren haustura gertatzen ez dela eta modulu egokia dela konprobatzen da.

$$\sigma_b = \frac{F_t}{\psi \cdot m^2} \cdot q \leq \sigma_{bonar}$$

Non:

σ_b : hortzaren tentsio makurtzailea $\left[\frac{Kg}{cm^2}\right]$

F_t : gurpilaren indar tangenziala [Kg]

q : gurpilaren forma faktorea [-]

σ_{bonar} : materialaren tentsio makurtzaile onargarria $\left[\frac{Kg}{cm^2}\right]$

Engranaje helikoidaletarako 3.30 formula ere erabilgarria izaten da, baina nola hortz gehiago kontaktuan daudenez, esfortzu makurtzaileak eta errodadura presio erangikorra teorikoaren %50-67 bitartekoa izaten da. Kasu honetan 0,6-ko erresistentziako hobekuntza koefizientea (C_r) ezarri da.

$$\sigma_b = \frac{F_t \cdot C_r}{\psi \cdot m^2} \cdot q \leq \sigma_{bonar}$$

3.26 Formula

Non:

$$C_r = 0,6: \text{erresistentziako hobekuntza koefizientea [-]}$$

Engranaje beraren bi gurpiletan indar tangenziala berdina da eta bere balioa momento tortsoaren eta erradioaren arteko erlazioa da, kalkuluak errazteko unitate aldaketak egiten dira.

$$F_t = \frac{100 \cdot T}{r} = \frac{200 \cdot T}{d}$$

3.27 Formula

Engranaje zuzenen kasuan gurpilaren jatorrizko diametroa (primitiboa) moduluaren eta hortz kopuruaren arabera izaten da, baina helikoidaletan hortzen inklinazio angelua ere kontutan izan behar da.

Engranaje zuzenen diametroa:

$$d = m \cdot z$$

3.28 Formula

Engranaje helikoidalaren diametroa:

$$d = \frac{m \cdot z}{\cos \beta_\alpha}$$

3.29 Formula

Wissmann-ek definitutako gurpilen forma faktorea gurpilaren hortz zuzenen arabera izaten da eta 3.20 taulatik hautatzen da. Gurpil helikoidaletan 3.29 formula erabili behar da, hortz birtualen terminoa, modu honetan hortz zuzen baliokideak erabili ahal izateko.

Engrane angelua $\alpha = 20^\circ$	Kanpoko hertzak	z	10	11	12	13	14	15	16	17	18	21
		q	5,2	4,9	4,6	4,4	4,1	3,9	3,8	3,6	3,5	3,3
	Barneko hertzak	z	24	28	34	40	50	65	80	100	∞	
		q	3,2	3,1	3	2,9	2,8	2,7	2,6	2,5	2,5	
	Barneko hertzak	z	∞	200	100	70	50	38	30	24	20	
		q	2,5	2,4	2,3	2,2	2,1	2	1,9	1,8	1,7	

3.20 Taula: Wissmann-en q forma faktorea

Hau jakinda, aurretik kalkulatu diren moduluak erresistentziara frogatzeko hurrengo ebazpidea jarraitu behar da.

1.martxa:

Martxa honen gurpil txikiaren pareta eta diametroa ezagututa, 3.27 formularen bidez gurpilak jasaten duen indar tangenziala determinatzen da.

$$d_3 = \frac{0,3 \cdot 15}{\cos 20} = 4,79 \text{ cm}$$

$$F_{t3tmax} = \frac{200 \cdot 40,77}{4,79} = 1702,72 \text{ Kg}$$

3.20 formularen bidez hertz zuzenen baliokideen kopurua zehazten da eta 3.20 taulako Wissmann-en forma faktorea lortzen da hertz baliokide horiekin.

$$z_v = \frac{z}{\cos^3 \beta} = \frac{15}{\cos^3 20} = 18,07$$

$$q = 3,5$$

Bukatzeko 3.26 formularen balio guztiak ordezkatzeko dira eta hertzak jasaten duen tentsio makurtzailea lortzen da, azken hau materialaren tentsio makurtzaile onargarriaren azpitik egon behar da.

$$\sigma_b = \frac{1702,72 \cdot 0,6}{10 \cdot 0,3^2} \cdot 3,5 = 3973 \text{ Kg/cm}^2 > 3000 \text{ Kg/cm}^2 = \sigma_{bonar}$$

$$\sigma_b = \text{ez da onargarria}$$

Moduluaren kalkulu hurbildua erresistentziara eginda, 1.martxanikusit daiteke 3 mm-ko modulu ez dela nahikoa. Nola engranaje guztiei modulu berdina ezarriko zaie, hau da,

beharrezkoa den modulu handiena. Kalkual berriro egingo dira baina hurrengo modulu normalizatua hartzen, 3 mm-koa ez baita nahikoa. Aukeratzen den modulua 4 mm-koa da.

$$d_3 = \frac{0,4 \cdot 15}{\cos 20} = 6,39 \text{ cm}$$

$$F_{t3tmax} = \frac{200 \cdot 40,77}{6,39} = 1277,04 \text{ Kg}$$

$$\sigma_b = \frac{1277,04 \cdot 0,6}{10 \cdot 0,4^2} \cdot 3,5 = 1676,12 \text{ Kg/cm}^2 < 2500 \text{ Kg/cm}^2 = \sigma_{bonar}$$

$$\sigma_b = \text{onargarria}$$

Martxa	Gurpil txikia	z	T_{max} [Kg·m]	d [cm]	F_t [Kg]	q	σ_{bonar} [Kg/cm ²]	σ_b [Kg/cm ²]	Onargarria
HE	1	28	32,62	11,92	547,32	3,1	3000	636,26	Bai
1	3	15	40,77	6,39	1277,04	3,9	3000	1676,12	Bai
2	5	23	40,77	9,8	832,04	3,23	3000	1007,81	Bai
3	7	31	40,77	13,2	617,73	3,05	3000	706,53	Bai
5	10	24	25,07	10,2	491,23	3,2	3000	589,48	Bai
6	12	21	20,39	8,94	456,15	3,3	3000	564,49	Bai

3.21 Taula: Moduluaren erresistentziarako egiaztapena gurpil txikietan

3.4.4.3 ATZERAKO MARTXAREN ANALISIA

Martxa hau beste martxen desberdina izaten da, batetik hartz zuzeneko engranajeak izaten ditu, eta ardatz sekundario eta bitartekoen artean beste gurpil gehigarri bat izaten du, biraketaren noranzkoa aldatzeko. Baina erredukzio bitarteko ardatzaren gurpilaren eta ardatz sekundarioaren gurpilaren artean izaten da, gurpi gehigarria soilik dago biraketaren noranzkoa aldatzeko.

Martxa honek kutxa aldagailuan duen transmisio erlazio totala 3,647-koa da, baina nola hasierako erredukzio dago, gurpil hauek egin beharreko erredukzioa txikiagoa izaten da.

$$i_{am} = \frac{z_2}{z_1} \cdot \frac{z_{15}}{z_{13}} = \frac{35}{28} \cdot \frac{z_{15}}{z_{13}} = 3,647 \rightarrow \frac{z_{15}}{z_{13}} = 2,9176$$


Aurrean kalkulatuko diseinu baldintzei jarraituz, bitarteko ardatza eta ardatz sekundarioaren arteko distantzia konstante mantendu behar da, eta hori aurrean kalkulatuako beste martxen engranaje helikoidalek mugatzen dute.

$$D = \frac{4 \cdot 63}{2 \cdot \cos 20} = 134,085 \text{ mm}$$

Martxa honetan aurrean azaldu den bezala, gurpil gehigarri bat dago bitarteko eta ardatz sekundarioaren artean, honek biraketaren noranzkoa baimenduko du. Gurpil gehigarri hori lekua izan behar du eta bitarteko ardatza eta ardatz sekundarioa ezin dira ukipenean egon. Horrexegatik, beren erradioen batura ardatzen arteko distantzia baino txikiagoa izan behar da.

$$r_{13} + r_{15} = \frac{m}{2} \cdot (z_{13} + z_{15}) < 134,085 \text{ mm} = D$$

3.30 Formula



3.14 Irudia: Atzerako martxaren konfigurazioa

Atzerako martxa gurpil hauek akoplatzean ezartzen da eta bakarrik momento horretan transmitituko dute biraketa. Erabilera koefizientea (C_e) %55-85 tartean egoten da, baina nola martxa hau kasu gutxitan erabiltzen da 0,65-eko koefizientea ezarri da, biraketa momento gutxitan transmitituko baidute.

Ordea, gurpil hauetako engranajeak hortz zuzenakoak dira eta esfortzu handiak jasan behar dituzte. Aurrean beste martxekin egin den bezala, gurpil bakoitzara aurreko baldintzak

betetzen dituzten konbinazio posibleak aztertu dira hurrengo tauletan, eta baldintzei gehien hurbildatuko konbinazioa aukeratu da, hau da, egokiena kutxa aldagailu honetarako.

Hortz zuzeneko gurpiletan hortz kopuru minimoa 14 hortzetakoa da. Nola 13 eta 14 gurpilen artean ez da erredukziorik egon behar, azken hau bakarrik biraketaren noranzkoa aldatzen du, bi hauek hortz kopuru berdina izango dute.

$$z_{13} = z_{min} = 14 \rightarrow z_{15} = z_{13} \cdot 2,9176 = 14 \cdot 2,9176 = 40,84 = z_{15}$$

z_{13}	z_{14}	z_{15}	Erredukzioa	Errore absolutua
14	14	40	2,857	$60 \cdot 10^{-3}$
14	14	41	2,929	$10,9 \cdot 10^{-3}$
15	15	42	2,8	$117,6 \cdot 10^{-3}$
15	15	41	2,733	$184,27 \cdot 10^{-3}$
16	16	47	2,937	$19,9 \cdot 10^{-3}$
16	16	46	2,875	$42,6 \cdot 10^{-3}$

3.22 Taula: Atzeko martxaren konbinazio posibleak

Errore gutxien daukan konbinazio hautatu da, orain beste martxekin egindako prozesu berdina jarraitu behar da modulua kalkulatzeko, baina modulua kalkulatu ondoren, aurrean aipatutako baldintza betetzen dela konprobatu behar da.

MODULUAREN KALKULUA IRAUPEN ETA HIGADURARA

Atzeko martxaren gurpil txikia bitarteko ardatzean kokatuta dago, horrexegatik hasierako erredukziorik pasatutako momentua eta biraketa heltzen zaio.

$$T_{13max} = T_{mmax} \cdot i_{he} = 320 \cdot \frac{35}{28} = 400 \text{ N} \cdot \text{m} = 40,77 \text{ Kg}$$

$$n_{13Tmax} = \frac{n_{mTmax}}{i_{he}} = \frac{2500}{\frac{35}{28}} = 2000 \text{ rpm}$$

Gurpila altzairu alezio zementatu eta tenplatukoa da, 3.14 eta 3.16 taulen bidez errodadura presio karakteristikoko onargarria interpolazio linealaren bitartez eskuratzen da, biraketa abiadura eta zerbitzu orden menpe.

$$k_{13onar5000} \rightarrow \frac{2500 - 2000}{125 - x} = \frac{2500 - 1500}{125 - 150} \rightarrow k_{13onar5000} = 137,5 \text{ Kg/cm}^2$$

$$\varphi_{A.M} = 3,4$$

$$k_{onar13} = \varphi_{A.M} \cdot k_{13onar5000} = 3,4 \cdot 137,5 = 338,8 \text{ Kg/cm}^2$$

Balio hauek jakina, 3.24 formularen balio guztiak ordezkatzuz 1.martxarren modulu minimoa lortzen da:

$$m_r \geq \sqrt[3]{\frac{200 \cdot 0,8 \cdot 40,77 \cdot \left(\frac{40}{14} + 1\right) \cdot \cos^6 20}{338,8 \cdot 14^2 \cdot 10 \cdot \sin 20 \cdot \cos 20 \cdot \frac{40}{14}}} = 0,305 \text{ cm}$$

Hurrengo balioa handia daukan modulu normalizatua 3,5 mm-koa da, hauxe aukeratu da. Orain modulu horrekin moduluaren kalkulua burutzen da erresistentziara.

MODULUAREN KALKULU HURBILDUA ERRESISTENTZIARA

Martxa honen gurpil txikiaren pareta eta diametroa ezagututa, 3.27 formularen bidez gurpilak jasaten duen indar tangenziala determinatzen da.

$$d_{13} = 0,35 \cdot 14 = 4,9 \text{ cm}$$

$$F_{t13tmax} = \frac{200 \cdot 40,77}{4,9} = 1664,081 \text{ Kg}$$

3.20 taulako Wissmann-en forma faktorea 4,1 dela lortzen da.

Bukatzeko 3.26 formularen balio guztiak ordezkatzeko dira eta hortzak jasaten duen tentsio makurtzailea lortzen da, azken hau materialaren tentsio makurtzaile onargarriaren azpitik egon behar da.

$$\sigma_b = \frac{1664,081 \cdot 0,6}{10 \cdot 0,35^2} \cdot 4,1 = 3343,21 \text{ Kg/cm}^2 > 3000 \text{ Kg/cm}^2 = \sigma_{bonar}$$

$$\sigma_b = \text{ez da onargarria}$$

Modulu normalizatuen taulara joanda, hurrengo modulu normalizatua aukeratu behar da, hau da, 4,5 mm-ko modulu. Modulu honekin berriro erresistentziarako kalkulua berritzen da.

$$d_{13} = 0,45 \cdot 14 = 6,3 \text{ cm}$$

$$F_{t13tmax} = \frac{200 \cdot 40,77}{4,9} = 1294,29 \text{ Kg}$$

$$\sigma_b = \frac{1294,29 \cdot 0,6}{10 \cdot 0,45^2} \cdot 4,1 = 1572,32 \text{ Kg/cm}^2 < 3000 \text{ Kg/cm}^2 = \sigma_{bonar}$$

Aurrean aipatutako baldintza betetzen dela konprobatu behar da, bitarteko eta ardatz sekundarioa ezin dira ukipenean egon, haien arteko D distantzia, aurrean kalkulaturako beste martxek definitu dute, $D = 134,086 \text{ mm}$

$$r_{13} + r_{15} = \frac{m}{2} \cdot (z_{13} + z_{15}) < 134,085 \text{ mm} = D$$

$$r_{13} + r_{15} = \frac{4,5}{2} \cdot (14 + 40) = 121,5 \text{ mm} < 134,085 \text{ mm} = D$$

Gurpilen artean dagoen distantzia librea hurrengo da:

$$dis\cdot libre = D - (r_{13} + r_{15}) = 134,085 - 121,5 = 12,586 \text{ mm}.$$

Guzti hau konprobatuta atzerako martxaren konfigurazioa modu honetan geratzen da:

z_{13}	z_{14}	z_{15}	Erredukzioa	Erredukzio totala	Modulua [mm]	$r_{13} + r_{15}$ [mm]	$Dist\cdot libre$ [mm]
14	14	40	2,85	3,57	4,5mm	121,5	12,586


3.23 Taula: Atzeko martxaren gurpilak

ATZERA MARTXAKO ARDATZAREN KOKAPENA

Atzerako martxako ardatzak, gurpil gehigarria duenak, posizio edo angelu konkretua izatea beharrezkoa da, besteekin aldi berean engranatzeko eta hori kosinuaren teoremaren bitartez zehazten da.

$$a^2 = b^2 + c^2 - bc \cdot \cos \theta$$

3.31 formula



3.15 Irudia: Atzerako martxaren dimentsionaketa

Bitarteko eta ardatz sekundarioen arteko distantzia ezaguna da, aurrean kalkulaturako da, eta beste distantziak erradioen batura eginez lortzen dira.

$$a = D = 134,085 \text{ mm}$$

$$b = r_{13} + r_{14} = \frac{m}{2} \cdot (z_{13} + z_{14}) = \frac{4,5}{2} \cdot (14 + 14) = 63 \text{ mm}$$

$$c = r_{14} + r_{15} = \frac{m}{2} \cdot (z_{14} + z_{15}) = \frac{4,5}{2} \cdot (14 + 40) = 121,5 \text{ mm}$$

$$134,085^2 = 63^2 + 121,5^2 - 2 \cdot 63 \cdot 121,5 \cdot \cos \theta \rightarrow \theta = 87,184^\circ$$

3.4.4.4 ENGRANAJEEN DIMENTSIONAKETA

Behin engranajeen modulua eta hortz kopurua kalkulaturak, beren behien betiko dimentsioak zehaztu daitezke. Hortz zuzen eta helikoidalaren adierazpenak desberdinak dira.

HORTZ HELIKOIDALEKO ENGRANAJE ZILINDRIKOAK

- Hartzaren dimentsioak

Modulu aparentea:

$$m_a = \frac{m_r}{\cos \beta_a}$$

3.32 Formula

Addenduma edo hartzaren buruaren altuera:

$$h_k = m_r$$

3.33 Formula

Dedenduma edo hartzaren erroaren altuera:

$$h_b = m_r + j$$

3.34 Formula

Lasaiera erradiala

$$j = 0,25 \cdot m_r$$

3.35 Formula

Hartzaren altuera:

$$h = h_k + h_b = 2 \cdot m_r + j$$

3.36 Formula

Pausu zirkular erreala

$$p_r = \pi \cdot m_r = p_a \cdot \cos \beta_a = \frac{2 \cdot \pi \cdot r \cdot \cos \beta_a}{z} = \frac{\pi \cdot d \cdot \cos \beta_a}{z}$$

3.37 Formula

Pausu zirkular aparentea:

$$p_a = \pi \cdot m_a = \frac{2 \cdot \pi \cdot r}{z} = \frac{\pi \cdot d}{z}$$

3.38 Formula

Hortzaren lodiera eta hortzen arteko hutsunea:

$$s = e = \frac{p}{2} = \frac{\pi \cdot m_r}{2}$$

3.39 Formula

Hortzaren luzera erreala:

$$b_r = \Psi \cdot m_r$$

3.40 Formula

Hortzaren luzera aparentea (gurpilaren zabalera):

$$b_a = b_r \cdot \cos \beta_a$$

3.41 Formula

- Anegluak

Hortzen presio edo engrane angelu erreala:

$$\alpha_r = 20^\circ \text{ normalizatua}$$

Hortzen inklinazio edo helize angelu aparentea:

$$\beta_a = 20^\circ \text{ normalizatua}$$

Hortzen presio edo engrane angelu aparentea:

$$\frac{\tan \alpha_r}{\tan \alpha_a} = \cos \beta_a \rightarrow \alpha_a = \tan^{-1} \left(\frac{\tan \alpha_r}{\cos \beta_a} \right)$$

3.42 Formula

Hortzen inklinazio edo helize angelu erreala:

$$\frac{\tan \beta_r}{\tan \beta_a} = \cos \alpha_a \rightarrow \beta_r = \tan^{-1} (\cos \alpha_a \cdot \tan \beta_a)$$

3.43 Formula

- Gurpilaren dimentsioak

Jatorrizko diametroa edo diametro primitiboa

$$d = \frac{m_r \cdot z}{\cos \beta_a}$$

3.44 Formula

Kanpo zirkunferentzia diametroa

$$d_k = d + 2 \cdot h_k = \frac{m_r \cdot z}{\cos \beta_a} + 2 \cdot m_r$$

3.45 Formula

Barne zirkunferentziaren diametroa


$$d_b = d - 2 \cdot h_b = \frac{m_r \cdot z}{\cos \beta_a} - 2 \cdot (m_r + j)$$

3.46 Formula

Oinarrizko diametroa

$$d_{ba} = d \cdot \cos \alpha_a$$

3.47 Formula



3.16 Irudia: Hortz helikoidaleko gurpil zilindrikoen dimentsio nagusiak

Aurreko formulen bitartez hertz helikoidaleko gurpileen dimentsioak lortzen dira, 3.24 taulan ikus daitezke behin betiko gurpilen dimentsioak:

Gurpila	Martxa	z	m_r [mm]	m_a [mm]	α_r [°]	β_a [°]	α_a [°]	β_r [°]	h_k [mm]	h_b [mm]
1	HE	28	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
2	HE	35	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
3	AU1	15	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
4	AU1	48	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
5	AU2	23	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
6	AU2	40	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
7	AU3	31	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
8	AU3	32	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
9	AU5	39	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
10	AU5	24	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
11	AU6	42	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5
12	AU6	21	4	4,257	20	20	21,173	18,747	4	5

3.24 Taula: Hertz helikoidaleko gurpil zilindrikoen dimentsioak

Gurpila	p_a [mm]	p_r [mm]	b_r [mm]	b_a [mm]	d [mm]	d_k [mm]	d_b [mm]	d_{ba} [mm]
1	13,373	12,566	40	37,588	119,188	127,188	109,188	111,142
2	13,373	12,566	40	37,588	148,985	156,985	138,985	138,928
3	13,373	12,566	40	37,588	63,851	71,851	53,851	59,541
4	13,373	12,566	40	37,588	204,322	212,322	194,322	190,529
5	13,373	12,566	40	37,588	97,904	105,904	87,904	91,295
6	13,373	12,566	40	37,588	170,27	178,268	160,268	158,776
7	13,373	12,566	40	37,588	131,96	139,958	121,958	123,052
8	13,373	12,566	40	37,588	136,215	144,215	126,215	127,02
9	13,373	12,566	40	37,588	166,012	174,012	156,012	154,805
10	13,373	12,566	40	37,588	102,161	110,161	92,161	95,265
11	13,373	12,566	40	37,588	178,782	186,782	168,782	166,713
12	13,373	12,566	40	37,588	89,391	97,391	79,391	83,357

3.24 Taula: Hertz helikoidaleko gurpil zilindrikoen dimentsioak

HORTZ ZUZENEKO ENGRANAJE ZILINDRIKOAK

- Hartzaren dimentsioak

Addenduma edo hartzaren buruaren altuera:

$$h_k = m$$

3.33 Formula

Dedenduma edo hartzaren erroaren altuera:

$$h_b = m + j$$

3.34 Formula

Lasaiera erradiala

$$j = 0,25 \cdot m$$

3.35 Formula

Hartzaren altuera:

$$h = h_k + h_b = 2 \cdot m + j$$

3.36 Formula

Pausu zirkularra

$$p = \pi \cdot m = \frac{2 \cdot \pi \cdot r}{z} = \frac{\pi \cdot d}{z}$$

3.37 Formula

Hartzaren lodiera eta hortzen arteko hutsunea:

$$s = e = \frac{p}{2} = \frac{\pi \cdot m}{2}$$

3.38 Formula

Hartzaren luzera erreala:

$$b = \Psi \cdot m$$

3.40 Formula

- Anegluak

Hortzen presio edo engrane angelu erreala:

$$\alpha_r = 20^\circ \text{ normalizatua}$$

- Gurpilaren dimentsioak

Jatorrizko diametroa edo diametro primitiboa

$$d = m \cdot z$$

3.44 Formula

Kanpo zirkunferentzia diametroa

$$d_k = d + 2 \cdot h_k = m \cdot z + 2 \cdot m$$

3.45 Formula

Barne zirkunferentziaren diametroa


$$d_b = d - 2 \cdot h_b = m \cdot z - 2 \cdot (m + j)$$

3.46 Formula

Oinarrizko diametroa

$$d_{ba} = d \cdot \cos \alpha$$

3.47 Formula



3.17 Irudia: Hortz zuzeneko gurpil zilindrikoen dimentsio nagusiak

Aurreko formulak erabiliz hortz zuzeneko gurpilen dimentsionaketa burutu daiteke. Kalkuluak eginda gurpilen behien betiko dimentsioak 3.25 taulan ikusi daitezke:

Gurpila	Martxa	z	m [mm]	α [°]	h_k [mm]	h_b [mm]	p [mm]	b [mm]	d [mm]	d_k [mm]	d_b [mm]	d_{ba} [mm]
13	AM	14	4,5	20	4,5	5,625	14,137	45	63	72	51,75	59,201
14	AM	14	4,5	20	4,5	5,625	14,137	45	63	72	51,75	59,201
15	AM	40	4,5	20	4,5	5,625	14,137	45	180	189	168,75	169,145


3.25 Taula: Hortz zuzeneko gurpil zilindrikoen dimentsioak

3.4.4.5 ENGRANAJEEN INDARRAK

Gurpilak momento tortsore jakin baten erangipean daude eta gurpil batek beste gurpilarekin kontaktuan sartzean, bi gurpiletan kontrako noranzkoa duten indar berdinak sortzen dira. Nola gurpil batek ardatz batean egongo da eta bestea beste ardatza batetan, eta hauek kontrako norantzan biratzen dutenez, sortutako indarrak berdinak izango dira, baina kontrako seinuarekin. Indar hauek momento tortsorearen eta gurpilaren ezaugarrien arabarekoak izaten dira, hortz zuzeneko eta hortz helikoidaletako indarren osagaiak desberdinak izaten dira.

HORTZ HELIKOIDALEKO ENGRANAJE ZILINDRIKOAK

Momentu tortsoreak hortz helikoidaleko gurpil zilindriko baten gain eragitean, osagai tangenziala (F_t), erradiala (F_r) eta norabide axiala duen indarra (F_a) agertzen dira.



3.18 Irudia: Hertz helikoidaleko gurpil zilindrikoetan agertzen diren indarrak

Indar tangenziala, 3.4.4.2 ENGRANAJEEN MODULUA atalean aztertu dena, jatorrizko zirkunferentziaren ukitzaila da eta gurpilen artean potentzia eta pareta transmititzen duen indarra da. 3.48 formula jarraituz, indar hau gurpilera heldutako parearen eta jatorrizko erradioaren erlazioaren bidez lortzen da.

$$F_t = \frac{T}{d_1} = \frac{2 \cdot T}{r_1}$$

3.48 Formula

Indar erradiala, ordea, zentrorantz dago zuzenduta eta bi gurpilak batzeko joera duen indarra da. Indar hau indar tangenziala, presio angelua eta helize angeluen arteko erlazioaz lortzen da.

$$F_r = F_t \cdot \frac{\tan \alpha_r}{\cos \beta_a}$$

3.49 Formula

Indar axiala ardatzen norabide bera duen indarra da. Indar hau indar tangenziala helize angeluaren tangenteaz biderkatuz eskuratzen da.

$$F_a = F_t \cdot \tan \beta_a$$

3.50 Formula

Aurreko formulak erabiliz, gurpil bakoitzean agertzen diren indarrak lortu dira. 3.26 taulan adierazten dira.


Gurpila	Martxa	z	α_r [°]	β_a [°]	d [mm]	T [Kg·m]	F_t [Kg]	F_r [Kg]	F_a [Kg]
1	HE	28	20	20	119,188	32,62	547,371	212,013	199,227
2	HE	35	20	20	148,985	40,775	547,371	212,013	199,227
3	AU1	15	20	20	63,851	40,775	1277,192	494,694	464,86
4	AU1	48	20	20	204,322	130,48	1277,192	494,694	464,86
5	AU2	23	20	20	97,904	40,775	832,959	322,63	303,172
6	AU2	40	20	20	170,27	70,908	832,959	322,63	303,172
7	AU3	31	20	20	131,96	40,775	617,611	239,219	224,792
8	AU3	32	20	20	136,215	42,09	617,611	239,219	224,792
9	AU5	39	20	20	166,012	40,775	491,23	190,268	178,793
10	AU5	24	20	20	102,161	25,076	491,23	190,268	178,793
11	AU6	42	20	20	178,782	40,775	456,142	176,677	166,022
12	AU6	21	20	20	89,391	20,387	456,142	176,677	166,022

3.26 Taula: Hertz helikoidaleko gurpil zilindrikoen indarrak

Ikusi daitekeenez, engranaje bereko gurpiletan indar berdinak baina kontrako noranzkoan sortzen diren indarrak agertzen dira, hau da, akzio-erreakzio printzipioa dela eta, eta elkarrekintza hau engranajeari dagokion martxa akzionatzean soilik jazotzen dela. Indar hauek kutxa aldagailuko ardatzen eta beste osagaien dimentsionamendua baldintzatzen dute.

HORTZ ZUZENEKO ENGRANAJE ZILINDRIKOAK

Motorretik heldutako momento tortsoareak hertz zuzeneko engranaje zilindriko bat eragitean, osagai tangenzialean (F_t) eta erradialean (F_r) deskonposatzen diren indarrak agertzen dira.



3.19 Irudia: Hertz zuzeneko gurpil zilindrikoetan agertzen diren indarrak

Indar tangenziala kalkulatzeko formula hertz helikoidaletan erabilitakoa berdina da.

Indar erradiala, indar tangenziala eta presio angeluaren tangentearen arteko biderketan datza.

$$F_r = F_t \cdot \tan \alpha$$

3.51 Formula

Aurreko formulak erabiliz, gurpil bakoitzean agertzen diren indarrak lortu dira. 3.27 taulan adierazten dira.

Gurpila	Martxa	z	α [°]	d [mm]	T [Kg·m]	F_t [Kg]	F_r [Kg]
13	AM	14	20	63	40,775	1294,44	470,977
14	AM	14	20	63	40,775	1294,44	470,977
15	AM	40	20	180	116,5	1294,44	470,977

3.27 Taula: Hertz zuzeneko gurpil zilindrikoen indarrak

Ikusi daitekeenez, engranaje bereko gurpiletan indar berdinak baina kontrako noranzkoan sortzen diren indarrak agertzen dira, hau da, akzio-erreakzio printzipioa dela eta. Indar hauek eta beste martxen indarrak kutxa aldagailuko ardatzen eta beste osagaien dimentsionamendua baldintzatzen dute.

3.4.4.6 ENGRANAJEEN EGIAZTAPENA

Hortzak daukaten gurpilen arteko potentziaren transmisioa jarraia izateko, uneoro gutxienez bi hortz kontaktuan egon behar dira. Baieztapen hau egiteko, engrane koefizientea dago. Koefiziente hau bat baino handiagoa dela egiaztatzen da.

“LAFONT, P., DIAZ, A. eta ECHAVARRI, J. Diseño y cálculo de transmisiones por engranajes. Universidad Politécnica de Madrid. Madrid, 2009.” Liburutik hurrengo formulak lortu dira, konprobatzeko bi hortz konjokaturen arteko engrane bukatu aurretik beste bikote bat engranatzeko hasi dela, desberdintasunak daude hortz zuzen eta helikoidalaren artean.

HORTZ HELIKOIDALEKO ENGRANAJE ZILINDRIKOAK

Hortz helikoidalak zeharrek dira eta engranatzeko progresibo eta luzeagoa dauka, kondukzio arkuan kontaktua egoteaz gain, hortz bakoitzaren perfilak aurrekoaren posizioa heltzeko biratu behar duen arku edo jauzi basikoa (s_{bs}) ere kontuan hartu behar da.

$$\varepsilon_{\alpha} = \frac{g_{\alpha} + s_{ba}}{p_{br}} = \frac{\sqrt{d_{k2}^2 - d_{ba2}^2} + \sqrt{d_{k1}^2 - d_{ba1}^2} - (d_1 + d_2) \cdot \sin \alpha_a + 2 \cdot b \cdot \tan \beta_r}{2 \cdot m_a \cdot \pi \cos \alpha_a}$$

3.52 Formula

Nola gurpilen dimentsioak, 3.4.4.4. ENGRANAJEEN DIMENTSIONAKETA atalean lortu dira, balio horiek 3.52 formularen sartuz engranaje helikoidalaren engrane koefizienteak lortzen dira.

Gurpila k	Martxa	α_a [°]	β_r [°]	m_a [mm]	d_1 [mm]	d_{k1} [mm]	d_{ba1} [mm]	d_2 [mm]	d_{k2} [mm]	d_{ba2} [mm]	ε_{α}
1-2	HE	21,173	18,747	4,257	119,188	127,188	111,142	148,985	156,985	138,928	2,545
3-4	AU1	21,173	18,747	4,257	63,851	71,851	59,541	204,322	212,322	190,529	2,509
5-6	AU2	21,173	18,747	4,257	97,904	105,904	91,295	170,27	178,268	158,776	2,541
7-8	AU3	21,173	18,747	4,257	131,96	139,958	123,052	136,215	144,215	127,02	2,551
9-10	AU5	21,173	18,747	4,257	166,012	174,012	154,805	102,161	110,161	95,265	2,544
11-12	AU6	21,173	18,747	4,257	178,782	186,782	166,713	89,391	97,391	83,357	2,536

3.28 Taula: Hortz helikoidalako gurpil zilindrikoen engrane koefizientea

Ikusten denez, engranaje guztietan engrane koefizientea bat baino handiagoa da eta potentziaren transmisio egokia gertatzen da. Hain zuzen, koefizientea bi eta hiruren artean dago, horrek esan nahi du uneoro bi edo hiru hortz bikote kontaktuan daudela.

HORTZ ZUZENeko ENGRANAJE ZILINDRIKOAK

Hortz zuzeneko gurpiletan bat-bateko engranatzea gertatzen da, ez da graduala eta beren arteko kontaktu edo engrane koefizientea kondukzio arkuaren (g_α) eta pausu basikoaren arteko erlazioaren bidez zehazten da.

$$\varepsilon_\alpha = \frac{g_\alpha}{p_b} = \frac{\sqrt{d_{k2}^2 - d_{ba2}^2} + \sqrt{d_{k1}^2 - d_{ba1}^2} - (d_1 + d_2) \cdot \sin \alpha}{2 \cdot m \cdot \pi \cos \alpha}$$

3.53 Formula

Nola gurpilen dimentsioak, 3.4.4.4.2 HORTZ ZUZENeko ENGRANAJE ZILINDRIKOAK atalean lortu dira, balio horiek 3.53 formulatan sartuz engranaje helikoidalaren engrane koefizienteak lortzen dira.

Gurpilak	Martxa	α [°]	m [mm]	d_1 [mm]	d_{k1} [mm]	d_{ba1} [mm]	d_2 [mm]	d_{k2} [mm]	d_{ba2} [mm]	ε_α
13-14	AM	20	4,5	63	72	59,201	63	72	59,201	1,463
14-15	AM	20	4,5	63	72	59,201	180	189	169,145	1,588

3.29 Taula: Hortz zuzeneko gurpil zilindrikoen engrane koefizientea

Ikusten denez, engranaje guztietan engrane koefizientea bat baino handiagoa da eta potentziaren transmisio egokia gertatzen da. Hain zuzen, koefizientea bat eta biren artean dago, horrek esan nahi du uneoro bat edo bi hortz bikote kontaktuan daudela.

3.4.5 ARDATZAK

Kutxa aldagailua osatzen duten hiru ardatz nagusiek, primarioak, bitartekoak eta sekundarioak eta atzera martxakoak engranaje bikoteak eta bestelako elementuak eutsi eta biraketa ardatz bezala lan egiten dute lehenengo hirurek, atzerako martxakoa, ordea, finkoa da.

Kutxa aldagailu honen ardatzak beteak izango dira diametro txikiagoarekin erresistentzia eta karga gaitasun handiago izaten baidute. Ardatzak dimentsionatzerakoan, bakoitzak jasaten duen egoera kritikoaren arabera izan beharreko diametro minimoa eta ildaskatuak kalkulatu dira, azken honetan ahal den neurrian diametro desberdinak egotea saihesten da diseinua sinplifikatuz, pitzadurak murrizteko eta fabrikazio merkatzeko. Aurrekoa kontuan hartuta, kutxa aldagailuaren ardatzen diseinurako bertan jasan beharreko osagai desberdinen ezaugarriak eta hauen indarrak abiapuntutzat hartzen dira.

3.4.5.1 ARDATZETAKO ERREAKZIO ETA ESFORTSUAK

Hasteko ardatzetako gurpilen kokapena zehaztu behar da eta hauen indarrak jakinda, euskarrietako agertzen diren erreakzioak eta ondoren ardatz horien momento diagramak kalkulatu dira. Honetarako, indarrak puntualak, konstanteak eta gurpilen zentroan aplikatzen direla suposatuta da eta engranajeen eta euskarrien indarrak bakarrik aztertu dira, hauen pisua eta marruskadura mesprezagarriak dira agertzen diren beste indarrekin konparatuta.

Ardatzen luzera eta gurpilen kokapena definitzeko, gurpil helikoidalen zabalera 37,6 mm-koa eta gurpil zuzenena 45 mm-koa dela aurreko ataletan kalkulatu da, sinkronizatzaileen zabalera 60 mm-koa dela suposatuta da. Hau jakinda, ardatzak ahalik eta laburren izatea eta euskarriak kargetatik hurbiltzen jartzen saiatu behar da, momento makurtzaileak murrizteko eta ardatzak txikitze asmoz.


Behin ardatzen luzerak eta osagaien kokapenak ezagututa, pare maximoko egoeran, egoera kritikoenean, ardatzek martxa bakoitzean jasaten dituzten indarrak eta dagozkien diagramak egiten dira. Kalkuluak errazteko indar guztiak dagozkien planoetan deskonposatu dira. Indar guztiak eragiten dituzten momento torsoreak eta makurtzaileak kontuan eduki behar dira. Indar axialen ondoriozko gilbordura arbuiatu da eta momentu torsoreak eta makurtzaileak aztertu dira. Momentu makurtzaileak bi norabidetan osagaiak izaten ditu, horrexegatik bere erresultantea kalkulatu behar da.

$$M = \sqrt{M_y^2 + M_z^2}$$

3.54 Formula

-Bitarteko ardatza

Bitarteko ardatzean gurpil finkoak muntatuta daude eta ardatzarekin batera biratzen dute, hauek potentzia ardatz primarioetik ardatz sekundariora transmititzen dute. Honen diametro minimoa kalkulatu hurretik, dimentsionamendu hurbildua burutu da diametro hori lortzeko asmoz.




3.20 Irudia: Bitarteko ardatzaren dimentsionamendu hurbildua

Ardatz honek hasierako erredukzioetik igarotako biraketa jasotzen du, martxa guztietan ardatzak pare maximo berdina jasaten du eta hasierako erredukzioari eta aukeratutako martxati dagozkion gurpilaren indarrak agertzen dira.

Erreakzioen eta momentuen kalkulurako, pare maximoko egoera hartu eta martxa guztietan prozedura berdina jarraitu behar da. 1. martxa aztertu da adibide gisa.

Adibidea: 1. martxa:

Martxa honetan aurrean aipatutako hasierako erredukzioa, 2. gurpilaren, eta 3. gurpilaren, potentzia ardatz sekundariora transmititzen duena, eragipean dago.



3.21 Irudia: 1.martxan agertutako esfortzuak bitarteko ardatzean

$$T_{2max} = 40,775 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$

$$r_2 = 0,0744925 \text{ m}$$

$$F_{t2} = 547,371 \text{ Kg}$$

$$F_{r2} = 212,013 \text{ Kg}$$

$$F_{a2} = 199,227 \text{ Kg}$$

$$T_{3max} = 40,775 \text{ Kg} \cdot m$$

$$F_{t3} = 1277,192 \text{ Kg}$$

$$F_{r3} = 494,694 \text{ Kg}$$

$$F_{a3} = 464,86 \text{ Kg}$$

Euskarrietako ekuazioak lortzeko, oreka estatikoaren ekuazioak aplikatu behar dira, eta momentuak B puntuarekiko aztertzen dira.

$$\sum F_x = 0 \rightarrow R_{xA} = F_{a3} - F_{a2}$$

$$\sum F_y = 0 \rightarrow R_{yA} + R_{yB} = F_{r2} + F_{r3}$$

$$\sum F_z = 0 \rightarrow R_{zA} + R_{zB} = F_{t3} - F_{t2}$$

$$\sum M_y^B = 0 \rightarrow R_{zA} \cdot 0,5906 = F_{t3} \cdot 0,3766 - F_{t2} \cdot 0,5318$$

$$\sum M_z^B = 0 \rightarrow R_{yA} \cdot 0,5906 = F_{r2} \cdot 0,5318 + F_{r3} \cdot 0,3766 - F_{a2} \cdot 0,0744925 + F_{a3} \cdot 0,0319255$$

$$R_{xA} = 464,86 - 199,227 = 265,633 \text{ Kg}$$


$$R_{zA} = \frac{1277,192 \cdot 0,3766 - 547,371 \cdot 0,5318}{0,5906} = 321,54 \text{ Kg}$$

$$R_{yA} = \frac{212,013 \cdot 0,5318 + 494,694 \cdot 0,3766 - 199,227 \cdot 0,0744925 + 464,86 \cdot 0,0319255}{0,5906}$$

$$= 506,35 \text{ Kg}$$

$$R_{yB} = 212,013 + 494,694 - 506,35 = 200,35 \text{ Kg}$$

$$R_{zB} = 1277,192 - 547,371 - 321,54 = 408,281 \text{ Kg}$$



3.22 Irudia: Momentu tortsore eta makurtzaileen diagrama, 1.martxan, bitarteko ardatza

Ardatzaren ebakidura edo sekzio kritikoena, momentu makurtzaile eta tortsore maximoko egoera, 3.gurpila kokatua dagoen puntua da.

$$T_3 = 40,775 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$

$$M_3 = \sqrt{M_{y3}^2 + M_{z3}^2} = \sqrt{153,759^2 + 90,293^2} = 178,311 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$


Martxa	R_{xA} [Kg]	R_{yA} [Kg]	R_{zA} [Kg]	R_{yB} [Kg]	R_{zB} [Kg]	T [Kg·m]	M_y [Kg·m]	M_z [Kg·m]	M [Kg·m]
AU1	265,633	506,35	321,54	200,35	408,281	40,775	153,759	90,293	178,311
AU2	103,902	343,316	-99,384	191,327	384,972	40,775	107,407	68,221	127,241
AU3	25,565	288,667	-240,435	162,565	310,674	40,775	74,997	54,075	92,459
AU5	-20,434	237,232	-373,27	165,049	317,129	40,775	45,603	38,575	59,73
AU6	-33,205	314,812	-172,973	74,478	81,744	40,775	33,858	45,69	56,867
AM	-199,27	239,541	-290,14	443,449	1037,209	40,775	95,942	41,02	104,343

3.30 Taula: Bitarteko ardatzeko esfortzuak

-Ardatz sekundarioa

Ardatz honetan dauden gurpilak libre biratzen dute eta sinkronizatzaileen bitartez ardatzarekin batera birarazi daitezke eta bitarteko ardatzetik jasotako potentzia transmisio ardatzera transmititzen da ildaskatuaren bidez. Ardatz hau bitarteko ardatzarekin engranatuta


eta primarioarekin lerrokatuta egon behar da eta bere dimentsionamendu hurbildua egin da, ardatzaren diametro minimoa lortzeko asmoz.



3.23 Irudia: Ardatz sekundarioaren dimentsionamendu hurbildua

Denbora guztian bitarteko ardatzarekin engranatuta dago, baina bakarrik akzionatutako martxaren gurpileko biraketa heltzen zaio eta uneoro martxa bakoitzari dagokion gurpilaren indar eta momentuak sortzen dira. Ardatzaren muturreko ildaskatuak, berriz, momentu tortsoarea bakarrik transmititzen du, ez du eragiten bestelako indarrik.

Martxa bakoitzeko pare maximoa hartuta, martxa bakoitzaren gurpilak eragindako esfortzuak aztertu dira eta prozesu berdina erabili da martxa guztiak aztertzeko. 1. martxaren ebazpena egin da adibide gisa.



3.24 Irudia: 1.martxan agertutako esfortzuak ardatz sekundarioan

$$T_{4max} = 130,48 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$

$$r_4 = 0,102161 \text{ m}$$

$$F_{t4} = 1277,192 \text{ Kg}$$

$$F_{r4} = 494,694 \text{ Kg}$$

$$F_{a4} = 464,86 \text{ Kg}$$

Euskarrietako ekuazioak lortzeko, oreka estatikoaren ekuazioak aplikatu behar dira, eta momentuak D puntuarekiko aztertzen dira.

$$\sum F_x = 0 \rightarrow R_{xD} = F_{a4}$$

$$\sum F_y = 0 \rightarrow R_{yC} + R_{yD} = F_{r4}$$

$$\sum F_z = 0 \rightarrow R_{zC} + R_{zD} = F_{t4}$$

$$\sum M_y^B = 0 \rightarrow R_{zC} \cdot 0,533 = F_{t4} \cdot 0,3766$$

$$\sum M_z^B = 0 \rightarrow R_{yC} \cdot 0,533 = F_{r4} \cdot 0,3766 - F_{a4} \cdot 0,102161$$


$$R_{xD} = 464,86 \text{ Kg}$$

$$R_{zC} = \frac{1277,192 \cdot 0,3766}{0,533} = 902,42 \text{ Kg}$$

$$R_{yC} = \frac{494,694 \cdot 0,3766 - 464,86 \cdot 0,102161}{0,533} = 260,434 \text{ Kg}$$

$$R_{yD} = 494,694 - 260,434 = 234,26 \text{ Kg}$$

$$R_{zD} = 1277,192 - 902,42 = 374,772 \text{ Kg}$$



3.25 Irudia: Momentu tortsore eta makurtzaileen diagrama, 1.martxan, ardatz sekundarioan

Ardatzaren ebakidura edo sekzio kritikoena, momentu makurtzaile eta tortsore maximoko egoera, 4.gurpila kokatua dagoen puntua da.

$$T_4 = 130,48 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$


$$M_4 = \sqrt{M_{y4}^2 + M_{z4}^2} = \sqrt{141,14^2 + 88,22^2} = 166,443 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$

Martxa	R_{yC} [Kg]	R_{zC} [Kg]	R_{xD} [Kg]	R_{yD} [Kg]	R_{zD} [Kg]	T [Kg·m]	M_y [Kg·m]	M_z [Kg·m]	M [Kg·m]
AU1	260,434	902,42	464,86	234,26	374,772	130,48	141,14	88,22	166,443
AU2	120,456	436,014	303,172	202,174	396,945	70,908	110,748	56,407	124,285
AU3	79,62	279,721	224,792	159,599	337,89	42,09	81,567	38,527	90,208
AU5	34,198	132,531	178,793	156,07	358,699	25,076	51,581	22,443	56,252
AU6	123,376	354,473	166,022	53,301	101,669	20,387	42,111	14,657	44,589
AM	81,736	-224,645	0	389,241	-1069,795	116,5	98,956	36,005	105,303

3.31 Taula: Ardatz sekundarioko esfortzuak

-Ardatz primarioa


Ardatz primarioan enbragea eta bitarteko ardatzarekin engranatzten duen gurpil finkoa dago eta honek motorrak garatutako potentzia transmititzen du, 4. martxan zuzenean ardatz sekundariora igarotzen da. Hori dela eta, ardatz honek beste biekkin bat egin behar du eta bere dimentsionamendu hurbildua egin da.



3.26 Irudia: Ardatz primarioaren dimentsionamendu hurbildua

Ardatz honek martxa guztietan motorraren pare máximo berdina jasan arren, ardatz sekundarioak eragiten dizkion erreakzio aldakorrak eta ardatza gurpil finkoaren, 1. gurpilaren, eta sekundarioko C euskarriaren erreakzien menpe dago. Esfortzu hauek ardatzaren puntu berdinean agertzen dira eta kasu kritikoena 1. martxari dagokiona da, baina euskarrietako karga aldakorrak ere definitu behar dira errodamenduak aukeratu ahal izateko.

Aurrekoarekin, pare maximoko egoera hartu da martxa guztietarako, eta erreakzio eta momentuen kalkulua egin da, prozedura berdina jarraitu da martxa guztietarako. Aurrekoetan bezala 1. martxako ebazpena egin da adibide gisa.



3.27 Irudia: 1.martxagatik agertutako esfortzuak ardatz primarioan

$$T_{1max} = 32,62 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$

$$r_1 = 0,059594 \text{ m}$$

$$F_{t1} = 547,371 \text{ Kg}$$

$$F_{r1} = 212,013 \text{ Kg}$$

$$F_{a1} = 199,227 \text{ Kg}$$

$$R_{yC} = 260,434 \text{ Kg}$$

$$R_{zC} = 902,42 \text{ Kg}$$

Euskarrietako ekuazioak lortzeko, oreka estatikoaren ekuazioak aplikatu behar dira, eta momentuak F puntuarekiko aztertzen dira.

$$\sum F_x = 0 \rightarrow R_{xF} = F_{a1}$$

$$\sum F_y = 0 \rightarrow R_{yF} + R_{yE} = R_{yC} - F_{r1}$$

$$\sum F_z = 0 \rightarrow R_{zF} + R_{zE} = F_{t1} - R_{zC}$$

$$\sum M_y^F = 0 \rightarrow R_{zE} \cdot 0,23 = F_{t1} \cdot 0,0488 + R_{zC} \cdot 0,06$$

$$\sum M_z^F = 0 \rightarrow R_{yE} \cdot 0,23 = R_{yC} \cdot 0,06 - F_{r1} \cdot 0,048 + F_{a1} \cdot 0,059594$$


$$R_{xF} = 199,227 \text{ Kg}$$

$$R_{zE} = \frac{547,371 \cdot 0,0488 + 902,42 \cdot 0,06}{0,23} = 351,552 \text{ Kg}$$

$$R_{yE} = \frac{260,434 \cdot 0,06 - 212,013 \cdot 0,0488 + 199,227 \cdot 0,059594}{0,23} = 74,576 \text{ Kg}$$

$$R_{yF} = 260,434 - 212,013 + 74,576 = 122,997 \text{ Kg}$$

$$R_{zF} = 547,371 + 902,42 + 351,552 = 1801,343 \text{ Kg}$$



3.28 Irudia: Momentu tortsore eta makurtzaileen diagrama, 1.martxagatik, ardatz primarioan

Ardatzaren ebakidura edo sekzio kritikoena, momentu makurtzaile eta tortsore maximoko egoera, 1.gurpila kokatua dagoen puntua da.

$$T_1 = 32,62 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$


$$M_1 = \sqrt{M_{y1}^2 + M_{z1}^2} = \sqrt{80,857^2 + 17,152^2} = 82,656 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$

Martxa	R_{yE} [Kg]	R_{zE} [Kg]	R_{xF} [Kg]	R_{yF} [Kg]	R_{zF} [Kg]	T [Kg·m]	M_y [Kg·m]	M_z [Kg·m]	M [Kg·m]
AU1	74,576	351,552	199,227	122,997	1801,343	32,62	80,857	17,152	82,656
AU2	38,06	227,977	199,227	-53,497	1211,362	32,62	52,435	8,754	53,161
AU3	27,407	187,205	199,227	-104,986	1014,297	32,62	43,057	6,304	43,516
AU5	15,558	148,807	199,227	-162,257	828,709	32,62	34,226	3,578	34,413
AU6	38,822	206,705	199,227	-49,815	1108,549	32,62	47,542	8,929	48,373
AM	27,959	55,631	199,227	-102,318	378,357	32,62	12,795	6,431	14,32

3.32 Taula: Ardatz primarioko esfortzuak

-Atzerako martxako ardatza

Atzerako martxako ardatzak 14.gurpila jasaten du, ardatz honek finkoa da (ez da birakorra), ardatzaren muturrak kutxa aldagailuko karkasan landatuta daude. Bitarteko eta sekundarioko ardatzekiko aurreko diseinu baldintzak mantenduz bere dimentsionamendu hurbildua gauzatu da martxa akzionatuta dagoenerako, gurpila desplazatuta.



3.29 Irudia: Atzerako martxako ardatzaren dimentsionamendu hurbildua

Ardatz honetan, 14. gurpila bitarteko eta sekundarioko ardatzen gurpilekin engranatzean sortzen dira eta gurpil hau hortz zuzenekoa izanda, indar tangential eta erradialak agertzen dira. Engratze hori gertatzean gurpil hau beste biekin kontaktuan egotean indar erradialak elkarrekin ezeztatzea eta indar tangentialak bikoiztea eragiten du.

Aurrean aipatu denez, ardatz hau bakarrik 14. gurpilaren eranginpean dago eta pare maximoan jasaten dituen erreakzioak eta momentuak kalkulatu dira.



3.30 Irudia: Atzeko martxako ardatzean agertzen diren esfortzuak

$$T_{14max} = 40,775 \text{ Kg} \cdot \text{m}$$

$$r_{14} = 0,0315 \text{ m}$$

$$F_{t14} = 1294,44 \text{ Kg}$$

$$F_{r14} = 470,775 \text{ Kg}$$

Ardatz hau hiperestatikoa da eta landapen perfektuko karga baldintza bera duen egoera hartuz, 3.33 taularekin euskarrietako esfortzuak determinatzen dira.

Karga eta lotura motak	M_A	M_B	R_A	R_B
	$M_A = \frac{Pab^2}{L^2}$	$M_B = -\frac{Pba^2}{L^2}$	$R_A = \frac{Pb + M_A - M_B}{L}$	$R_B = \frac{Pa - M_A + M_B}{L}$

3.33 Taula: Ardatz hiperestatikoko esfortzuak

